

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Maiatzak 17, 107. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**EDURNE
ITURBE,
sel urte
espetxean**




Bizigiroaz arduratuta

Ingurugiro Ihardunaldiak Arrasaten

ARRASATE KIROLAK

Kontzeziño 8, Tfnoa: 79 46 12 ARRASATE



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia

STAZARNA STAZARNA STAZARNA

100 100 100 100

**ARRASATE
PRESS
ASTEKARIA**

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Leguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea, Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Hondamendi ixila

“**H**aurren egoera munduan” izeneko txostena kaleratu berri du UNICEFek. Sei kapitulutan banatuta, nazioarteko perspektiba aztertzen du txostenak, umeen oraina eta etorkizunari dagokienez. Duela zazpi bat hilabete, munduko hirurogeitamaika lehendakari eta ministrariren eskuhartzeaz Haurren aldeko Bileran Nagusia egin zenetik, ezer gutxi aurreratu ahal izan da plangintza bateratuan. Dirudienez, oztopoak larriago dira asmoen indarra baino.

Hondamendi ixiltzat har genezake umeen egoera munduko zenbait herrialdetan. Ez dirudi UNICEFek erregistratuta dituen datu eta estatistikak eraginik duten, hain zuzen ere haren sortzaile den Nazio Batuen Erakundean. Behintzat, ez da mugimendu berezirik nabaritzen, gaurregun mundua astintzen ari diren hainbat eta hainbat kalamitateren zigorretik umeak askatzeko. Areago, UNICEFek salatu egin du aipaturiko txostenean zenbait estaturen jarrera zinikoa... hori bai, izenik eman gabe.

Boteretsuek ez dute txiroenen sufrimendu eta behargarritasunez bat egin nahi. Horixe da konponezinaren gunea. Eta oker egon gintezke uste izango bagenu, umeen egoera salagarria azken hilabeteotan komunikabideek behin eta berriz erakusten dizkiguten gerra-umeak bakarrik direla. Horiek zati bat besterik ez ditugu, beste kasuak bezain mingots; baina ezin genezake

horretara bakarrik muga gaur eguneko hondamendia... bestela jokoa egingo bait genieke, eguneroko errealitate ixila estali nahi diguten boteretsu horiei.

Milako hirurogeitamar (%70) haur hil omen da munduan jaio bezain laster: 250.000 astero. Eragilerik zuzena, oraindik lurralde zabal askotatik desagertu ez diren zenbait gaisotasunetan bilatu behar da. Ez dira mundu on batera heltzen, lehen galbahe horretatik igarotzea lortu dutenak: elikadura urri eta desegokiak gogor zigortuko ditu bizirik ozta-ozta iraun dutenak. Itxura denez, urteko hamarna dolarrekin (1.000 pezeta) konpondu ahal izango lirake, gose eta gaizki jatearen larritasuna ez ezik, baita horiek umeengan sortzen dituzten kalteak ere. Zoritxarrez, ez dirudi diru-jario esku-rakor hori gauzatuko denik, askoren ustez munduko behartsuek behartsu izaten jarraitu behar bait dute, horrela pentsatzen dutenen sabel-onerako.

Baina arazoa ez datza soilik estatu ahaltsu eta txiroen arteko gatazka konpongaitzean. Gure artean ere-batipat guztiz ahalduari gehiegi begiratzen diogunez gero- hausnarketa sakona egin beharrean aurkitzen gara, gureak nola hazten eta hezten ari garen kontura gaitezen. Bizitzaren kalitatea (?) jaso nahian ari garela, kalitate horrek gure haurrentzako bidea ongi diseinaturik ote daukan aztertu beharko genuke, beldurrik gabe.

Josemari Velez de Mendizabal



**enpresa
bazkariak
eta famili bilerak**



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84



ZORTZI

**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora Z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE



ZENBAKI

**Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak**

Basabe industrialdea
Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

ARETXABALETA

Ekologistei

Ekologista deritzan baten idatzia agertu da 103garren zenbakian, eta beste hainbat txosten berdinekin azaltzen dira hainbat erdi-purdizko ekologista.

"Autobia inondik ere ez", ondo dago. Eta garraioa ekosistemen asimilazio gaitasuna gaintitzen ari bada, zergaitik zabaldu errepideak? Ez, ez.

Hobea izango da dauden errepide guztiak lurraz estaltzea, ingurunea kutsadurarik gabe mantentzeko. Gehien bat utzi daitezke bidezka batzuk, inork inora joan behar badu, oinez edo astoz joan dadin, eta gurdibideren bat kontaminaziorik gabeko gurdi garbiaz garraioaren bat ekar-eraman behar bada.

Bizikletarik ere ez. Honek egiteko industriak behar dira, eta petrolioa derrigorrezkoa denez, aidea kutsatzen dute, eta gainera industriak kapitalismoaren menpean jartzeko arriskua dutenez eta bertako lana oso alienantea delarik, inola ere ez. Petrolioa ondo dago lurpean eta gizakiak badauka zer egin alaitu eta kreatiborik, inoren menpean jarri gabe.

Industria denak desegin eta baratzak jarri haren tokian.

Bakoitzak zati bana izango luke bere fruitu eta barazkiarekin bizitzeko, eta lore politak inguru guzian jartzeko. Ez dago abereak eta arrainak hil beharrik. Baita gure etxe eta herriak ere sustraitik astindu beharko lirateke, ez daudelako naturaren erara bizitzeko eginda, espekuladore batzuen aldera baizik.

Azkoz hobeto biziko ginateke leize zuloetan, oraindik batzuk ondo margotuta dudanez, eta gutxi badira, zabaldu gehiago mendiaren magaletan, hori bai, ingurunea bortxatu gabe.

Ez dago zuhaitzak edo ohianak erori beharrik, bata besteari igurtziaz ederto berotuko ginateke.

Honelakoak izan beharko ziren 180ºko aldaketak. Zenbat milaka batuko ote lirateke hauek defendatzearen? Hamalau joango balira kontatu neugaz ere. Azkenengo troglodita izan zen azkeneko ekologista.

Harrez gerokoak, banakaren bat utopiko eta gehienak inkordioanteak.

Troglodita bat

Insumisioa dela eta

Joan den larunbatean preso dauden insumisioen aldeko martxa egin zen Madrileko kartzela militarerra. Egun, 11 objetore preso daude, hauetarik 4 gose greban daudelarik. Arrasatetik, lehen aipatutako martxara 5 pertsona joan ginen soilik, baina Eskoriatza, Bergara, Aretxabaleta eta Plaentxi artean busa bete ahal izan genuen. Niri kezkarria iruditzen zait hain pertsona gutxi joan izana. Insumisioa hedatuagoa zegoela pentsatzen nuen.

Moda bihurtu al da antimilitarismoa? Denbora gogorak datozkigu objetoreoi, gerra kontseiluak, kartzela zigorrak, etab.

Insumisioekiko elkartasun eta konpromezua areagotu egin beharko da, ugaritu, bestela jai dauka mugimenduak. Ez. Insumisioa ez da moda, gogor errotua dagoen mugimendua baizik. Hurrengora arte.

Objetore presoak askatu!

Mili K-K

EAJ-ak Arrasate Pressi

Joan den maiatzaren 10-eko Arrasate Press ikusi eta irakurri ondoren, astekari honen 13. orrialdean, datorren informazioak, atentzioa deitu digu, hau da, Alderdi ezberdinetako hautagaien euskara erabilpenaren ehunekoak argitaratu dituzue, EAJ-PNV-koak inondik ere agertzen ez delarik; nahigabe ahaztutako datu bat delakoan gaude.

Edozein modutan ere, zuzenduko bazenute, eskertuko genizueke, beste alderdi guztiei eman diezuen publikitate eta informazio berdina emanaz.

Begirunez,

Marisa Larrañaga

Zer eskatuko zenioke hurrengo alkateari?



Joxe Mari Mujika
(AEDko lehendakaria)

Euskaraz ere jakitea. Euskararen erabilpena bultzatzeko eta elkarlanean jarraitzeko borondatea.



Malen Errasti
(Emakumeen Asanbladakoa)

Planing-a eta etxetik aldegin beharrenda dauden emakumeentzako babes etxea. Horrezaz aparte, udaltxeko atenzioa gai ezberdinei buruzko informazioa emakumeentzat: aholkularitza juridikoa, udaleko lanpostuak %50ean banatzea, lanerako prestakuntza, ikastaroak emakumeentzat. Hori da azken urteotan eskatzen jardun duguna.



Jabier Mongelos
(Fagor Taldeko lehendakaria)

Bizitza kalitate hobea eskatuko nioke, Arrasate herri ordenatu, garbi eta maitagarriagoa egitea. Guzti hori gizarte ongizaterako plan egokia garatuz egitea, herri osoak bizitza atseginagoa izan dezan, arreta berezia jarriaz adineko jendearengan, euren egoerarengatik, eta gazteengan, laneko eta bizitzako ibilbideari ekiten diotelako.




Joxe Mari Astigarraga
(Arrasateko Parrokoa)

No comment.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDA-BAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA

Memesa

79 42 22

ZUBIZARRETA TAILERRAK



Gipuzkoa Etorbidea 22
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE

ELEKTRONIKA ARTIKULUEN SALMENTA

BAZAR

TOKI ON

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

ARTE LENIZ

koadro eta
moldurak

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Especialista)	77 12 64
(Txanda hartzeko)	77 03 46
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio (945)	45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------	----------

SUHIHTZAILERAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------	----------



17 OSTIRALA

- Zinea: Amaia. "Ordinaria locura", 10.30etan.
- Alai. "La hoguera de las vanidades", 7 eta 9.30etan.
- Bergaran Pentekostes jaiak.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

18 LARUNBATA

- Zinea: Alai. "La hoguera de las vanidades", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Umeentzako bideo emanaldia Monterronen, arratsaldeko 4etan.
- Antzerkia. "Antiheroes" Ur taldearekin, Amaia antzokian, gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

19 IGANDEA

- Zinea: Alai. "La hoguera de las vanidades", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Bergaran Pentekostes jaiak.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

20 ASTELEHENA

- Zinea: Alai. "La hoguera de las vanidades", 7 eta 9.30etan.
- Arrasateko Tailaginen Elkarteko erakusketa, hilaren 31ra arte Monterronen.

- Mendi Astea: Diapositiba-emanaldia, Juanjo San Sebastianen eskutik Monterronen, arratsaldeko 7etan.
- Bergaran Pentekostes jaiak.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

21 ASTEARTEA

- Zinea: Alai. "La hoguera de las vanidades", 7 eta 9.30etan.
- Mendi Astea: Besaideko Inguruen Egokitza proiektuaren aurkezpena, Albaro Arregiren eskutik, Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Bergaran Pentekostes jaiak.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

22 ASTEAZKENA

- Mendiko astea. Diapositiba-emanaldia, Nafarroako Espeleologi Federakundeak eskainita, Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

23 OSTEGUNA

- Mendiko astea. Filmea, "Mendikate txuria: Yicya", Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

Kirol Agenda

PILOTA

- Gipuzkoako herrien arteko txapelketan, Arrasate-Segura neurketa, Musakolako kiroldegian, gaur arratsaldeko 7.30etan.

TXIRRINDUA

- Arrasateko Txirrindulari Taldekoek Gernikatik buelta egingo dute, guztira 90 kilometro. Eurekin joan nahi duenak goizeko. Iteera, goizeko 9.15etan izango da.

Antzerkia

• "Antiheroiak"

Udaletxeko Kultur Batzordeak antolaturik, Ur taldeak antzerki lana eskainiko du bihar, gaueko hamar t'erdietatik aurrera Amaia antzokian, "Antiheroiak" izenburua daraman lanaren antzezpena hain zuzen. An-




tzez lana ikusi nahi dutenek 500 pezeta ordaindu beharko dituzte. Gazte txartelarekin sarrera 300 pezeta ordaindu beharko da.

Topaketak

• Aita Menni Ospitala

Ospitala eta gaisoen familien arteko harremanak sendotzeko helburuarekin, larunbata eta igandean, Santa Ageda auzoko Aita Menni Ospitalean VI. Topaketak antolatu dituzte. Egitarauak zer eskaintzen duen azaltzen hasi aurretik, larunbat eta igandeko egitarauak ia berdina direla esan behar da.

Ekintzei hasiera emateko goizeko hamaiketan, Ospitalera hurbiltzen diren guztiei harreara egingo zaie. Ordu laurden beranduago, Talde Terapeutikoak bere azalpena egingo du. Azalpena bukatzen denean, larunbatean Arrasate Musikaleko Akordeoi Orkestraren kontzertua izango da, eta



MENDI-ASTEA

Besaide Mendizale Elkartek antolatuta

Besaide Mendizale Elkartek antolaturik, datorren astean zehar 1991ko Mendi-Astea burutuko da. Ekintza guztiak Monterronen izango dira, arratsaldeko 7etan hasita, eta astelehenean bertan diapositiba-emanaldia izango da, Juanjo Sebastianek Shisha Pangma mendiaren igoera azalduko duelarik. Asteartean, Albaro Arregik Besaideko Egoitza Proiektuaren aurkezpena egingo du. Asteazkenean diapositiba-emanaldi berria, Nafarroako Espeleologi Federakundearen eskutik. Filmea ikusteko aukera izango da ostegunean, "Mendikate zuria: Yicya" izeneko, Pedro Sanchezek Peruko mendikate horri buruz duen ikuspegia azaltzen duen filmea hain zuzen. Diapositiba emanaldi berria izango da ostiralean, ifurrategi anaiek Pumorra egindako bidaiaren irakutsiko dutelarik. Mendi-Asteari bukaera emateko, igandean Mountain Bike txangoa burutukoda, goizeko 8.30etan kirodegitik aterata.

igandean berriz Meza Santua entzuteko aukera.

Ordubiak aldera, bazkaltzeko garaia iritsiko zaie Aita Menni Ospitalean biltzen direnei. Bazkalostean egingo diren dantzaldiak, ohi denez bukaera emango zaie larunbat eta igandeko ekintzei eta era berean Topaketei.

Kirolak

• Arrasate-Oñati

Urtero bezala, igande honetan Arrasate eta Oñati herrien arteko kros lasterketa burutuko

da. Aurtengoan lasterketa honen bederatzigarren edizioa beteko da. Ohitura denez, partidetza handia espero da. Las-



terketari goizeko hamaiketan emango zaio hasiera, eta izen ematea ordu erdi lehenago itxiko da Monte tabernan.

• Zikloturisten irtenaldia

Deba Garaia Txirrindulari taldeak antolaturik, igandean umeentzako marxa antolatu da, Aramaiotik bueltan. Irteera 10etan izango da, tren geltoki zaharretik. Istripurik gerta ez dadin, eta gertatuaz gero larridurarik izan ez dadin Ertzaintzakoak eta Gurutze Gorrikoak eurekin joango dira. Umeei hamarretakoa emango zaie.

Irratia

• Aike Acra

Arrasateko irratizaleek irratirako tresneriaren erakusketa egingo dute igandean Udaletxeko arkupeetan, Telekomunikazioaren nazioarteko eguna dela eta. Ekitaldi horretan irratizaleen munduari buruz jakin nahi duen edonori azalpenak emango zaizkio eta irradi komunikazio aprobak egingo.

Hauteskundeak

• Asteko ekintzak

EE: 18an, Mitina Xabier Gurrutxagarekin, Monterronen arratsaldeko 8etan. 21ean, 4.30etan Martin Auzmendi Eskola Politeknikoan.

EA: 21ean, Ester Larrañagari omenaldia, alkartetxean. 22an Imanol Murua Eskola Politeknikoa eta ATB bisitatu.

EAJ: 24ean, afaria batzokian.

HB: 24ean, Xabier Zubizarretaren hizketaldia Seberon, arratsaldeko 7etan. Ondoren, txikiteoa trikitilari eta hankaluzeeekin. 8etan Makailu tortila eta sagardo dastaketa. 10.30etan Rock jaialdia plazan, Baldin Bada eta Platero y tu taldeekin.

LKI-EMK: 24ean, Hertzainak, Malaria, eta Los Pichones taldeekin Musakolako kirodegian kontzertua, gaueko 10etan.

“ Arrasaten 500 emigrante bizi dira Quintana de la Serenakoak eta beste 200 Montillakoak, garai batean trenak bete Euskadira etorri ziren bi herrietakoak. Bada, herri bi horietako alkateek, PSOEkoak biak, gutunak bidali dizkiete Gipuzkoako euren herritarrei, 26an etxean gera ez daitezen. Munduko estremadurarrok, batu zaitezte”.

(Alberto Surio kazetariak DV egunkarian)

“ HBren barruan planteamendu kontrajarririk daude sektore askotan. HBren baitan ez dute bata bestearekin zerikusirik Euskadi independente batengan sinisten dutenek, ETAk beti independentziagatik borroka esan nahi duela pentsatzen dutenek eta Arrasateko jende hark, etengabeko iraultzan pentsatzen duten HASIko hauekin. Gainera, nola borrokatuko du marxista eta iraultzaile batek independentziarengatik, hori ideal burgesa bada?”.

(J. A. Ardanazak El Mundo del Pais Vasco egunkarian)

“ A.D.A.T.B.. Ez da sigla berri bat. Lasai! Lehengoan, 8an, Arrasateko TeleBistan Auto-Determinazioari buruzko Mahai-Inguru bat antolatu zuen Joxe Mari Velez de Mendizabalek; eta han izan nintzen.

Ez nuen Ospital-Zaharra ezagutzen; eta berriro ere harritu ninduten mondragoetarrek; ez baita A.T.B. hau, bere areto, tresneria, eta beste, Arrasate abertzaleak eskaini digun lorpen bakarra”.

(Txillardegik “Egin” egunkarian)



Zertan dago gaur egun kontzientzi eragozpena eta insumisioa?

Maiatzaren 15ean kontzientzia eragozpenaren nazioarteko eguna izan dela kontuan harturik, azken hilabeteen dinamika biziagoa daramagu insumisio mailan. Gaur egun insumisioaren definizioa ematekotan, holako zerbait esango genuke: kontzientzia eragozpenaren pauso ilegala. Hain zuzen ere gaur egun errepresio gogorra Ordezko Zerbitzu Soziala egiten dutenek eta soldadutzakoek jasaten dute.

Orain artean Gobernuak nahiko erantzun light-a eman izan dio arazoari: errepresio aukeratua, eragozleen amnistia eta antzeko neurriak hartu dituzte. Orain, ordea, jendea pilatu egin da eta horren aurrean bi aukera besterik ez dituzte, hala nola lege gogorak ezarri edo neurri bigunagoekin segitu. Nire ustez lehen hori gertatuko da. Gaur egun insumisio guztiak gerra kontseiluaren zain daude eta sumarioak isten ari dira Gobernuan orain. Hori dela eta, errepresio gogorra etorriko da.

Aste honetan bertan, nazioarteko egunarekin batera, 8 insumisio arrasatear, eskoitzar bat eta 6 bergarar aurkeztu ziren Donostiako Gobernu Militarraren aurrean. Aurreko astean ere Alcalara egin genuen bidaia, preso dauden insumisioei solidaritatea adieraztera, eta guztira 350 lagun inguru hurbildu ginen.

Hemendik gazte guztiei dei egin nahi genieke informazioa nahiz objezio edo insumisioa tramitatu nahi izanez gero Gazteen Informazio bulegora etor daitezen, astelehen eta astearte arratsaldetan.

Ander Santiago,

Kakitzat, Arrasateko Antimilitarista taldekoa.

Deba Garaiko III. Txiste Txapelketa

AEK-k antolaturik

Ekainaren 1ean, gaueko 11etan Amaia antzokian

Parte hartzeko dei egin 79 71 12 / 77 03 69 tfnoetara. (AEK)

Izenak emateko epea maiatzaren 27an bukatuko da.

Baldintzak: Txistek euskaraz izatea eta Deba Garaian bizi, lan egin edo ikastea.

- Sariak:
- 1.30.000 pta.
 - 2.20.000 pta.
 - 3.10.000 pta.

Parte hartzen dutenek afaria izango date.



hona hemen...

Nekane Iglesias (PSOE)

◆ "Oraindik auzi horrekin zabilazate?", esan zion Ramon Jau-regik Angel Rico sozialista mondragoetarrari Arrasate Pres-seko kazetaria euren mitinean sartzen uzten ez zutelako. «Ordua da behingoz konpon dezazuen, ala?». Azkenean ez zioten sartzen utzi. «Neu naiz hemengo idazkari nagusia eta zu ez zara hemen sartuko. Kitto!», izan ziren Francisco Garciaren azken hitzak.


◆ Joan den astean hautagaien euskararen ezagutzaz idatzi genuenean grafikoetan agertu arren, ez genituen EAJren portzentaia aipatu. Hauetxek dira. Zerrenda osoa kontuan hartuz gero %85ak daki euskaraz. Lehen lauen artean, ostera, %75ak.

◆ Arrasatek dituen 25.843 bizi-lagunetatik, 20.310 dira botua emateko eskubidea dutenak.

• Horientzat ohizko sei hauteslekuak jarri dira, alegia, Ferixalekuan, Santa Marinan, S. Antolingo ikastolan, S. Andres eskolan, Erguin eskolan eta Jokin Zaitegi ikastolan.

• Denetara 62 hautestontzi egongo dira, 31 mahaitan banatuta.

• Mahaietan egotea tokatzen zaienei 7.600 pta. ordainduko zaie.



LEIRE ZUBIKARAI 91

25 urte, ezkongabea, ikasketaz abokatua da Nekane; txikitan maistra izan nahi bazuen ere, gero abokatutza aukeratu zuen, mundua ulertzen lagunduko ziolakoan. Alderdiaren barruan zerbaitetan laguntzeko helburuarekin sartu zen politikan. Irakurtzea, paseatzea, lagunartea eta bere ilobarekin jolastea aipatzen ditu zaletasunen artean, kiroletarako nagi samarra dela aitortu arren. Gazteagotan solfeoa eta pianoa ez ikasiaz pena du, eta noizbait egingo duela dio, enpresa zientzien karrerarekin batera. Intolerantzia eta haserrea ezin ditu jasan eta egiazaletasuna estimatzen du gehien ingurukoan artean. Bere burua konstante eta adikortzat dauka. Bizitza eta zoriona ulertzeko modua, diruzaleatasuna eta antzeko gauzak aldatuko lituzke gizartean, eta lehen oso idealista izan arren, "orain ez hainbeste"; lotsatia, normalki umore onekoa da, baina haserretzen denean... "El Señor de los Anillos" ari da irakurtzen, eta "Casablanca" filmea ikusiko luke berriz. Arrasate bi hitzetan? "Herri itsusia, maite dudana".


BERRIRO ERE...

Kanping, hondartza, terraza eta kirol gaien aukera handiena aurkituko duzue salmenta onean



Cercas bajas 34, GASTEIZ

Erdiko kale. 79 15



Ferrieras. 79 87 62

"EDERTU" ileapaindegia




San Andres auzos 79 04 28

hona hemen...

Javier Argomaniz (PP)

❖ Zenbait familiatan politika oso errotuta dagoela ikusteko nahikoa da Arrasateko zerrendei begiratua ematea. Hainbatetan aita eta seme-alabak aurkituko ditugu. **Jose Antonio Altuna (5)** eta **Igor Altuna (15)** EAren zerrenda berean daude. Gauza bera gertatzen zaie PSOeren zerrendan **Jose Luis Lana (ordezkoa)** eta haren alaba **Miren Lanari**. **Jose Luis Mendiaratzen** kasua desberdina da. Bera ordezkotza izanda PSOeren zerrendan, alaba, **Ester Mendiaratz**, EMK-LKIren kandidatura doa. Denak ere ondo baino hobeto konpontzen dira elkarrekin.

❖ Anai arreba ere badira zerrendotan: EAJn, **Jose Mari Loiti** zerrendaburuak **Enrike Loiti** du zerrendakide, 7. postuan. Euskadiko Ezkerran **Aitor Orobengoa** alkategaiak **Elene Orobengoaren** laguntza du 20. lekuan. Eta EMK-LKIn **Alberto Encinas** eta **Piter Encinas** topatu ditugu 12. eta 16. lekuetan, hurrenez hurren. Famili gorabeherak, baita politikan ere.



LEIRE ZUBIKARAI 91

Javier Argomaniz, donostiarra, 38 urte, ezkondua, hamabi eta hamar urteko bi alabarekin. Duela lau urte bere burua Tolosan aurkeztu zuen bezala, orain hemen. Printzipioz, bere ideiatatik sartu omen zen politikan, Euskadiko gune politikoan bere ideiek tokia zutela pentsaturik. Enpresario ikasketak eginak dauzkan arren, beti salmeten munduan ari izan da lanean, baita orain ere. Argomanizek txikitzen musikoa izan nahi zuela dio, konposatzailea zehazki esanda, eta orain ere ez lortzearen pena omen du. Rugbyan, pilotan eta txirrindularitzan ibilitakoa. Pertsonen izaera eta jarrerak osotasunean ulertzea gustatuko litzaiokeela dio, eta pertsona patxadosoak atsegin dituela. Ezertan ez omen da bereziki iaioa, baina era berean denetan ikasle. Gizartetik bortxakeria baztertuko luke lehenik. Bere burua idealistatzat dauka, errealista izaten saiatzen den idealista. Etxekoia, serioa, oso jenio bizikoa baina kontrolatzen saiatzen dena. *"Mondragon, mucho más que una utopía"* irakurtzen ari da, Arrasate bi hitzetan definitzeko erabiliko zuen izenburua.

SANIDES

Parasitoel aurre egiteko
Insektu narraztiak akabatzeke,
arratolak barne

URTEBETEKO GARANTIA

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81

URRATS

AHOLKULARITZA

CARIBAI 3,
Tfnoa: 79 87 74 ARRASATE

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

LILURA -k

zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Eserleku kopurua ere gutxitu egingo da

Amaiaren berrikuntza onartu

Autobus geltokirako aukera asko aztergai

Amaia antzokiaren berritze lanak jasotzen dituen proiektua onartzea erabaki du Udaleko Gobernu Batzordeak, aurtengo aurrekontuetara lan horien kostua egokitzeko hirigintza sailak hasierako proiektuari zuzenketa edo aldaketa batzuk ezarri ondoren. Datorren ekainaren 1eko plenoan berriz ere aztertuko da gaia, behin betirako onespina eman eta deialdia egiteko.

Andoni Mendizabal arkitektuak idatzitako proiektuan antzokirako oraingo irteera dagoen tokitik sarrera jartzeko proposamena jasotzen zen, oraingo hall-ari beste erabileraren bat emateko. Udalak, hala ere, halla atontzeko lanei oraingoz ez ekitea erabaki du, lokalaren zertarakoa pentsatu artean. Aurrekontuari dagokionez, 80 milioi daude izendatuta aurtengoetan, eta Diputazioak ere beste hainbeste emango duenez, horrenbesterekin aurre egin ahal izango zaio berritze gutziari.

Amaian egingo diren berrikuntzen artean, segurtasun sistema eta berogailua aldatzea eta aldageletan ere berrikuntzak sartuko dira, eta aretoan bertan egingo diren pasabideak direla eta, 160 eserleku gutxiago izango dira aurrerantzean.

Beste lan batzuetan, bestalde, autobus geltokia eraiki ahal izateko diru izendapena egin du aurrekontuetan Udalak, kopuru sinboliko bezala pezeta batekoa ipiniaz. Aurten lanei ekitea erabakiko balitz, arazorik gabe handitu ahal izango litzateke partida ireki hori. Udala Roneo zaharra zegoen orubeko lanei begira dagoela esan daiteke, izan ere Kontzezino kalearen ondoan dagoena izan bait zen kokagune bezala aztertutakoetako bat. Iaz Diputazioari leku posibleekin egindako proposamenan geltoki zaharra, Garibai Plaza, Lau Kale, San Josepe, eta Zerrajerako lantegi zaharra ere aipatzen dira.

Usteak uste

1 98Sean Brian Mulroney-ren Partidu Kontserbadoreak Kanadako historia politikoan inoiz izandako garaipenik handiena lortu zuen hauteskundeetan. John Turner-en liberaleri, aitzitik, inoiz jasandako porrotik garratzena jausi zitzaion.

Kontserbadoreen uholdearen barruan egon zen, hala ere, biharamoneko egunkari guztietan azpimarratu zen kasua. Toronton bazegoen izena gogoratzen ez dudan politikari kontserbadore aberatsa, kanpainen milioiak xahutu arren, Ottawako Parlamentuan aulki barik gelditu zena. Hari partiduauren garaipenak ez zion laguntza handirik eman, arrazoi simple batengatik. Kanadan ez zaielako botua partidu politikoan zerrendei ematen, hemen bezala, hautagaiei balizik.

Sistema horren arabera hautagaiak ez dauka bere erantzunkizuna partiduauren sigletan ezkutatzetik. Bona eman edo ukatu egingo zaio, egindako lanaren arabera.

Egia badiotsuet, Kanadan ezagutu nuen sistema askoz zuzenago eta egokiagoa iniditzen zait hemen daukaguna baino. Gure artekoan betegarri larregi dago zerrendetan, ez du lastoa eta garaua bereizten bat ere laguntzen.

JOXE ARANZABAL

LEZARAN

ENMARKAZIOAK • LAMINAK • MARGOAK

Blteri Etorbidea 11, ARRASATE



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Urburu 24,
Tfnoa: 79 70 39
ARRASATE



Ikstetxea saldu ez da egingo

Asuntzion S.Viatorren esku

Ikastolako bazkideek oneritzia ematea falta

Asuntzion ikastetxea San Viator izango da seguruenik datorren ikasturtetik aurrera, Asuntziongo lekaimiek eskola uztea erabaki ondoren. Monjek Arrasate Pasealekuan duten ikastetxea erosteko azken urtean zehar saio ugari izan badira ere, azkenean biatoristen kontzesio eskaintza onartu dute, antza denez hamabost urterako. Jakina denez, San Viator ikastolak gaur egun duen ikasle kopuru handiarengatik eta ikastetxeak eskatzen dituen instalakuntza beharregatik aspalditik zebiltzan eskola

handitzeko asmotan, baina Udaletik eraikin berririk eraiki nahiz oraingoa handitzeko baimenik lortu ez dutenez, datorren ikasturtetik aurrera beste eraikin horretaz baliatzea aukeratu dute. Monjen ikastetxean dabiltzan umeez, San Viator arduratuko da, bestalde.

Itxura guztien arabera tramite guztiak bide horretatik doazen arren, behin betirako erabakia ikastolako bazkideen batzarrak onetsi beharko du, datorren asteazkenean helburu horrekin burutuko den asanbladan.

☐ Soldatuentzat baimena

San Juan jaiak gainean direla eta, Arrasateko Udaleko Alkatetzak soldadutza egiten ari diren gazte arrasatear guztien senitartekoei jakin arazten die, jaietarako baimen berezia eskuratzeko helbidea eta eskutitza zuzendu behar zaion agintariaren izen-abizenak eraman behar dituztela udaletxera, baimen hori eskatuaz gutun bana bidaltzeko asmoa du eta Arrasateko Udalak. Etxeko gazteren batentzat baimena lortu nahi dutenek Udaletxera jo behar dute bulego orduetan.

☐ 80 urtetik gorakoei omenaldia

Arrasateko Udalak omenaldia eskaini nahi die 80 urtetik gorako arrasatear guztiei, beste urte batzuetan egin izan den moduan, aurtengoz ekainaren 24ean. Bertan parte hartu nahi izanez gero, udaletxeko bulegoetan eman behar da izena, nortasun agiria erakutsiaz.



JAIOTZAK

Regaño Montoya, *Alex.* Maiatzaren 6an.
Viejo Bitoriano, *Iñaki* eta Viejo Bitoriano
Josu. 6an
Gorostiaga Lonbide, *Erick.* 7an.
Heriz Kortabarria, *Gorka.* 7an.


EZKONTZAK

Patxi Xabier Ugarte & M^a Jose Ijurre,
maiatzaren 9an. Zibilez.
Ramon Gonzalez & Itsasne Moreno, 11n.
Elizaz.
Benito Garcia & Lucia Murillo, 11n.
Elizaz.

SEGURTASUN-INJINERUTZA




Zure denda, lantegia, etxea,
etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA**
eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ



Kontzeiffo 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



Urkuluko urtegiak ezin du ur gehiagorik jaso.

Urkulu eta Landa gainezka

Hilaren 2a izan zen egunik euritsuena

Azken boladako euriteen ondorioz, Aramaiona eta Deba ibaien ur-kopurua asko handitu da. Ikerlanek emandako datuen arabera, euri gehien hilaren 2an eta 5ean egin zuen, metro karratuko 78 litro eta 60 litro jaso zirelarik batzbeste. Maiatza osoan euririk egin ez duen egunik ez da ezagutu, eta gutxien egin duen egunak hilaren 14a eta 15a izan dira, metro karratuko 0'2 eta 1'5 litro jaso zirelarik batz beste.

Erreketan ezezik, Urkulu eta Landako urtegietan ere asko nabaritu da ur kopuruaren gorakada, une honetan eta

aspaldiko partez, urtegi biak urez gainezka daude eta. Horregatik, Landako urtegiatan atea zabaltzeko behar izan dituzte, eta Urkulun ere urak gainezka egiten du.

Bestalde tenperaturetan gorabehera handirik ez da izan hil guztian zehar: egunik hotzena 6a izan zen, 10 gradu goitik eta 4 gradu behetik; epelena berriaz, 13a, 14 gradu goitik eta 10 gradu behetik.

Halaxe bada, duela hilabete batzuk lehortea arazo gogorra zen bezala, orain euriteak arazo latza bihur daitezke.

Langile komisioak

Deba Garaiko CC.OO.en lantegietako delegatuak, 50 inguru guztira, bildu zituen asteazkenean INEMeko bulegoaren aurrean, langabezia subsidioa jasotzen duten langileek lansari bereziak jasotzeko dituzten arazoak aurka protesta egiteko.



Etxe okupazioa

Arrasateko gazte talde batek Ferixalekuko eskolaren gainean dagoen etxebizitza okupatu zuen astelehenean. Jabea administrazioa denez, akordioaren batera iristeko prest daudela zioten "ordaintzeko moduko alokairua jarriz gero". EMK-LKIk bere laguntza eman dio gazte taldeari.





**COMERCIAL
TERRESTRE
MARITIMA
TRANSPORTES**

ARANBURU COTEMAR

Garraio agentzia



ATA

Zaldizpe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE


LOREA

Oinetakoak
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32

GASTEIZ

Onduline



URALITA

TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako materialak


Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18

ARAMAIO okindegia

Malsu Guridi 3,
Tfnoa: 79 35 46

• Zotz-Motzek lau sari banatuko ditu astero, orri honetan agertuko diren galderei ondo erantzuten dietenen artean. Moztu, bada, txartelak eta erantzunak Arrasate Pressera bidali.


• Uztaillaren 16an, Zotz-Motzen sari handiak zozkatuko dira: Renault Clio bat eta bi pertsonarentzako bidaia Kanariar Iletara. Zozketa handi honetan parte hartzeko txartelak Zotz-Motzen babesleek banatuko dituzte euren bezeroen artean, erosketekin batera.




• ANSCO argazki makina bat.

IRABAZLEAK

Argazki makina:
MARKEL
URIBARREN
 Telefonoa:
AIANA ALONSO
 Erlojua:
PELLO ZABALETA
 Afaria:
M. KARMEN
AGIRRE




• HANDY telefono bat.




• CASIO erloju bat.

Zotz




Iturriotz kalea 8, Tfnoa: 77 04 01
 ARRASATE



SOINUA • BIDEA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20
 ARRASATE



Maalako Errabala 5, Tfnoa: 79 19 25
 ARRASATE

Motz

LEHIAKETA

GALDERA

Zenbat
neurtzen
du
Muruk?

Izena:

Abizena:

Telefonoa:

• Bidali erantzuna eta zure datuak
Arrasate Pressera: Azoka Kalea 1.



• 2 lagunentzako AFARIA.



• KANARIAR IRLETARA
2 lagunentzako bidaia
astebeterako.



• Renault CLIO auto bat.
(F.F)



KATAIDE
ARRASATE

Kataide poligonoa, Tfnoa: 79 60 10
ARRASATE



Basketour
BIDAIAK

Maixu Arano 2, Tfnoa: 79 32 22
ARRASATE




MECA
tailerrak

Araba Etorb. z/g, Tfnoa: 79 50 12 / 79 52 12
ARRASATE



San Juanetarako **danborradaren**

entseiuak hasi dira dagoeneko San Frantziskoko kalistroan. Gure erredakziora nahikoa zaparrada iritsiko da, beraz, aurrerantzean astelehen, asteazken eta ostiraletan, arratsaldeko 5.45etatik aurrera. Irakasleak ere karraxi ederrak botatzen dizkie ume gaixoei. Ikasiko al dute!



Asteartean sinatu zuten **Xabier Zubizarreta** alkateak eta **Joxe Mari Mujika**k AEDko lehendakariak udalaren eta kultur elkartearen arteko elkarlanerako hitzarmena. Udalak 23 milioi emango dizkio AEDri urtean zehar burutu asmo dituen ekintzarako.

Elkarteen arteko Mus Txapelketako irabazleak Udalpe elkarteak izan ziren, **Jose Luis Andres, Pepe Rodriguez, Julio Markaide** eta **Migel Arrieta**. Torrepekoiei izugarritzko jipoia eman zieten, ordainean argazkian dauzkaten garaikur eta txapelak eman zizkietelarik. Zorionak bada Udalperi eta argazkiko lauei. ▶



LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Zerkaosteta kalea 1 eta 2, Tínoak: 79 27 27 / 79 13 55 ARRASATE



Izen
PROPIOAK

● **Iñaki Maizblde** txabalinar, **Asler Fernandez de Arrolabe** diskoan eta **Aitor Arnalz** eta **Karlos Vitorla** korrika izango dira Arrasateko ordezkariak maila ezberdinetan, bigarren kategoriako Kluben arteko txapelketetan, aste bi barru.

● **Leopoldo Marla Panerok**, poeta madrildarrak, poesia errezitaldia eskaini zuen ostegunean Monterrongo aretoan, bere poemez osatua. Panerok lau urte t' erdi daramatza Santa Agedako psikiatrikoan. Bere lanak dozena bat liburutan bildurik ditu, poemak eta beldurrezko ipuinak hain zuzen.

● **Marla Jesus Lezeta**, 35, eskoitzarrak, **Nurla Fernandez de Arrolabe**, 24, gatzagarrak eta **Irene Txurruka**, 24, ermuarrak *Belaxe* itzulpen zerbitzua sortu dute Arrasate. Nuriak eta Marijek Magisteritza ikasi zuten eta Irenek Euskal Filologia, eta irakasle ibiliak dira.

▲ **Petra Axpe** eta **Juan Bautista Urbarren** 1941ean ezkondu ziren, San Isidro egunez, Azkuako elizan. Aste honetan urrezko eztaiak ospatu dituzte, etxeok bakarrik. Hala ere, ospakizun handiena uztailaren 27an egingo dute, Azkuan bertan, senitarte guztia bilduko dutelarik. 100 lagun inguru elkartuko omen da orduan. Orain bi urteko argazkian **Agus**, **Enara** eta **Rafaeltxo**ekin ageri da bikotea. Mila zorion!




◀ **Bergarako Udal Euskalteglan** ikastaro trinkoa egiten ari diren ikasleak etorri zitzaizkigun Arrasate Press eta ATB ikustera. Haien artean hainbat arrasatear zegoen. Bertako platoan atera genien argazkia.

ITSASKI


arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate, 79 96 94

BONBOIAK



FRUITU LEHORRAK
Otalora 2, ARRASATE



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

Ingurugiro Ihardunaldiak: kontzientziazioa helburu

Mankomunitetik

Hala ere, Berezibarren mustez, "Mankomunitateak edo Udalek, horri indarra ematen dioteneke, jendeari gai hauei buruz informazioa emateko duten eginkizuna betetzen dute, izan ere edozein herritarri dagokio gaur egun ingurugiroa. Jende gehiago etortzea gustatuko zitzaigukeen arren, balorazioa positiboa da, beste leku batzuetan eta antzeko gaieetan ez da eta erantzun hoberik jasotzen".

Mankomunitatekoek argi dute gai hauetan teoriatik errealitatera jaistea zaila dela eta kolektibo askoren jarrera aldaketa sortu beharraz jabetzen dira, baina "zentzu horretan politikoeke herritarren eta taldeen presioaren beharra dute", Berezibarren esanetan. Horrezaz gain, Udalek eta Mankomunitateek gai hauei heldu beharra dagoen arren, Diputazio eta Gobernuak ere lan horiei ekin beharra dagoela dio, "gogo aldetik gehien egin dezaketenak hurbileneko erakundeak izanagatik, aukera

Jendearen erantzuna espero bezain zabala izan ez den arren, saioetan gai interesgarriak aztertu ziren, eta eztabaida aberasgarria sortu. Jarraipena eskatzen duen gaia da.

Apirilaren 18an hasita, Ingurugiroari buruzko Ihardunaldiak antolatu ditu ostegunero Deba Garaiko Udal Elkarteak Eskola Politeknikoko aretoan. Hondakin solidoak, arriskutsuak, Hondakin solidoak Deba Garaian, Gaurregungo arazoak eta hartutako konponbideak, ikuspegi orokorra eta Europako Elkartearen barrutia eta Deba arroaren saneamendu integrala izan dira egunegun aztertu diren gaiak. Mankomunitateak bailarako udaletxeetako zinegotzi, enpresari, ikastetxeetako zuzendari eta naturaz kezkatuta lanean ari diren taldeei luzatu die gonbitea.

bidali dira. Saioetara hurbildu den jendeari buruz balorazio baikorra egiten du, 85 laguneko batz bestekoa kalkulatzeko da eta, deialdiaren zabala kontuan izanik, partaidetza handiagoa espero izan arren. Aztertutako gaiak interesgarritzat jo ditu.

Hizlariak erdi edo goi mailakoak izateaz gain, egin zaizkien galderen maila handia azpimarratzen du. Elkarriketan entzule dexentek esku hartu izana aipagarri da "etorritakoen interesa eta gaiaren ezagutza handia dela erakusten du horrek".

Helburuak eta jasotako erantzuna

erman Berezibarren, Mankomunitateko Kontseiluek esanetan, helburu dibulgatzailez antolatu diren ihardunaldiotara berrehun gonbidapen inguru



Kutsaduraren zati garrantzitsu bat airekoa da.

errealetan motzen geratzen direnak eurak dira eta. Oraindik, adibidez, ez da birziklatzeko batutakopilentzat irtenbiderik bilatu, eta guk ez dugu horretan inbertitzeko dirurik, eta konponbideak aplikatzea besterik ez dagokigu. Zaborren arazoari irtenbidea ematea ere oso prozesu geldia izango da". Kontzientziazioa oso astiro doan arren, ingurugiroarengatik kezka mugitzen hasia dela iruditzen zaio, "Irakasle Eskolan eta San Viatorren ezarri diren ikasketak, talde ekologistak eta Udala auzoko Eskola horren lekuko".

EKikoek zer?

Hitzaldien mailarekin gustora badaude ere eta orokorrean jarrera guztiak ikusi direla uste duten arren, formaren aldetik akatsa ikusten diete Ekikoek, gaia bailarako arazoetara hurbildu denean bailarako ekologistei dei egin ez zaielako. Aldaketa nabarmena ikusten du Mikel Olabek hondakinen bilketa selektiboan tekniko eta administrazioaren aldetik. "Lehen planteamendu troglodita eta txapuza erizten zioten, baina orain ez dute ezetzik esaten, nahiz eta gero nahi dutena egin. Kontzientzia ekologistak gora egin du orokorrean". Hala ere, alderdi politikoez eta Mankomunitateak arlo honetan duten ikuspuntuarekin ez datoz bat inola ere, "beste



Hondakin solidoen birziklaia eskatzen du hainbat taldek.

batzuk bueltan datozenean hemen joan goaz, gauza guztietan bezala. Holanda, Alemania eta Estatu Batuetan oso gaizki ikusita daude inzineradoreak eta hemen oster, orain ipintzen. Gure planteamendua horiek istea da, labe horrek kutsadura tokiz aldatu baino ez du egiten eta".

Bailaran plan orokorra goaren falta kritikatzan dute: Hondakin motaren arabera Mankomunitateak erabaki duen politika, Akeiko erraustegia eta Epeleko biltegiarena "kalamitate hutsa da, Epelekoa biltegi kontrolatua izango da eta. Arrasaten, gauden moduan egonda, ordua da planteamendu alternatiboa egiteko:

hezkuntza plan orokorra, -horretan badaude esperientziak-, bilketa selektiboa egiten hasi eta hortik ahal den gehiena errekuuperatzen joatea. Beste filosofia bat, beste planteamendu bat izaten da. Errekuuperazioan lan egiten duten enpresak badira beste leku batzuetan ere, eta errentagarria da". Gai hauetan gainera, erakundeek jarrera errealistegia daukate la uste du Mikelek, geroari bat ere begiratu barik eta ideaslismoari leku txikenik ere eman gabe.

Eguzki

Talde hori izan da ihardualdiak egitearen ideia bultzatu duena, eta oroko-

• Ihardunaldi hauen ondoren Mankomunitateak zerbait egin behar luke erreziklaiaren alde (Eguzki)

• Beste batzuk bueltan datozenean hemen joan goaz ingurugiro gaitan ere (Eki)

rean positiboa izan dela diote, batzuetan teknikoegia ere izan dela aipatu arren.

"Hor bi kontzepzio ezberdin ikusi dira: Mankomunitateak eta Udalak gestio mailan dutela ardura, zer egin zaborrekin, eta ekologistona berriz horrezaz gain, zaborrak porduzitzearen zergatia, arazo sakonetara jo behar da. Hemendik aurrera errekuuperaketa, birziklaia eta bilketa selektiboa egin behar dira, eta proiektu pilotoa eskatu behar dugu"


Beste aldetik, asistentzia eta eztabaidetako parte hartzea positibotzat badituzte ere, politiko gutxi izatea aipatzen dute alde negatibo bezala. Horrezaz gain, konklusio moduko seigarren egun bat eskatzekotan dira Eguzkikoak, Felix Arriararen esanetan.

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE


7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE




Etorkizunaren erronka

- Gertu dagoen erakundea dugu
- **kutxa**, garai berriei aurre egiteko.
- Teknika- eta giza baliabiderik
- eraginkorrenekin, gailentzeko.
- Beharrian berriei egokituriko maila
- bikaineko zerbitzuez, eraberritzeko.
- Alor guztietan aurrera egiteko.
- Etorkizun gero eta lehiakorrago
- baterantz.
-
-
-



kutxa



gipuzkoa
donostia kutxa

caja gipuzkoa
san sebastián

Ondo aterako da.

LABURPENA: Tomey eta Aurora elkartu egin dira aspaldiko partez. Aurorak bere aita hiltzeko asmoa azaldu dio...

2. atala

Badakizu, Tomey, elkarrekin ezkonduko garela. Nire aitak, agian, bere herentzia neska gazte mukizu horri utziko dio. Ezin gara arriskatu. Aita hil eta herentzia neuk kobratuko dut, biontzat.



Erotu egin zara, Aurora? Zerk pentsarazten dizu nik halako astakeria batean parte hartzeko prest nagoela?

Benga, Tomey; lelokeria gutxiago nirekin. Zuk nik beste maite duzu dirua.



Eta joko honetan diru asko dago. Biontzat, Tomey. Sekula ikusi duzun diru pilarik handiena.

LUZAROAN PENTSATU ETA GERO.



Ez dakit nola demontre moldatzen zaren, baina, beti harrapatzen nauzu zure jolasetarako. Hala, ekin. Xehetasun guztiak jakin nahi ditut. Den-denak!


EGUN BATZUK BERANDUAGO.



Tomey, nola pozten nauen zu hemen ikusteak. Zer, pentsatu al duzu lehengoan hitz egingakoari buruz?



Ez dut besterik egin, buruari bueltak eta bueltak eman. Eta saltsa honetan probetxurik aterako dugula dirudienez...



Oh, Tomey, lagundu egingo didazu... banekien konponduko ginela, eta ez naiz oker ibili. Tipo ausarta zara, Tom. Eta beti osatu izan dugu hain bikote perfektoa...



Ez zara damutuko, Tomey. Neuk agintzen dizut.



Etorri nirekin. Gure usapalak ezagutu ditzazun nahi dut...

Horra hor, Romeo eta Julieta!
Zuk uste posible dela? Oraindik umegorria da!
Eta gure agurea zeharo lelotuta berarekin... Ezin
diegu ezkontzen utzi, bestela, herentzia galduko
nuke. Ez dute usaindu ere egiten gainera dator-
kiena.




JARRAITUKO
DU.

**I
R
A
T
I**

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

**KAJOI
TABERNA**

Erdiko kale 22,
ARRASATE



NOSKI

GARAGARDOTEGIA

Otalora 23, Tfnoa: 77 09 23
ARRASATE

EDERRA
taberna

Iturriotz 12, Tfnoa: 79 96 25
ARRASATE

Edurne Iturbek 36 urte dauzka, eta azken sei urteak Estatu espainiarre-ko hainbat espexetan pasatu ditu. Mojetan ikasi ondoren eta Magisteritza eta Historia ikasketak hasi zituen, utzi eginez gero, tabernan lanean hasteko. Espetxean sei urte egin eta gero, joan den astean ongi etorria eskaini zitzaion.

— Espetxeko bizimoduan, egun normal bat nolakoa da?

— Aspaldi ez dut egun normalik ezagutu. Hasieran, bizitza normala egiten genuen, bai Yeserias eta baita Karabantxelen ere, denok elkarrekin geunden: goizeko 8ak aldean atea irekitzen zituzten, nahi zuena patiora jaitsi zedin; 9etatik 9.30ak bitartean, gosaria eta dutxa hartzen genituen. Bazkal ordua arte, euskarazko klaseetan egoten ginen. Bazkaldu eta gero denetarik egiten genuen, udaran patioa atera eta eguzkia hartu, kirola egin... neguan berriz, ikasteko aprobetxatzen genuen. Afalostetan zeldetan biltzen ginen, hitz egiteko.

Guzti hori lehen zen, ia azken bi urteak oso-osorik zeldan pasatu ditut. Atera aurreko bost hilabeteetan, bizitza normala egin dudala esan daiteke: zazpi zelda txiki-txikitan berrogeitamar emakume eta euren umeekin batera egotea, guztiek lau dutxa erabiltzea, goiz eta arratsalde osoan 20 metro-tako patio batean aurrera eta atzera ibiltzeari... bizitza normala deitzerik badago behintzat.

— Zein harreman izaten da horrenbeste jendekin?

— Preso sozialen artean, ia egunero izugarritzko iskanbilak izaten zituzten baina preso politikoeekin ez ziren

Edurne Iturbe

Sei urte espetxean



sartzen, euren artean lapurretan ibiltzen ziren, baina guri gauzak eskatu egiten zizkiguten... lagun handi eta onenak presondegian egin ditut.

— Espetxean, zeren falta izaten da nabariena?

— Lagun handiak egiten dira bertan, eta askotan, lagunekin hitz egiteko toki lasai bat egotea ederra izango litzatekeela pentsatzen da. Lasai egiteko toki baten beharra oso handia izaten da.

— Sei urtetan zein izan da pozik handiena?

— Ateratzeaz aparte, espexetako onena bertan egin ditudan lagunak izan dira.

— Eta gehien mindu zaituena?

— Hasieran, GALEk egin zituen atentatueta lagun asko galdu nituen, eta horrek min handia egin zidan.

Nik neuk pasatu dudan garai txarrena Ceutako espexean izan da. Lau hilabeteetan bakar bakarrik egotera behartu ninduten, zelda batean sartuta, ezin izan nuen inorekin hitz egin. Hainbeste denbora bakarrik egonda, zoratzeko arriskua dago, buruak lan asko egiten du, bizitza osoko irudi guztiak pasatzen dira burutik eta gainera norbera konturatu barik. Momentu batean burua

bete-bete egotera iristen da, zergatia jakin barik, kontrolaezina da. Uste dut gehien markatu nautenak lau hila-bete horiek izan direla.

Handik urte batera ere, antzerako egoeran egon nintzen: bakarrik, egoera gogorrean, oihuka hitz egiteko ondoko zeldan zegoen beste lagun bat... eta orduan ere, burura Ceutako irudiak etortzen zitzaizkidan.

— Kanpoko munduarekin bada harremanik?

— Bisitatzekeo baimen bakarra familiakoek izan dute, ondorioz harremanik zuzenena eurokin izan dut. Kanpokorako lotura ez galitzen lagunena idazkiek lagun-tzen dute. Idazle onak daude kaleko jendearen artean.

— Espetxetik atera zinenen, zein zen egin nahi zenuen lehen gauza?

— Atera nintzenezan presondegiari kanpotik, buelta eman nion, barruan gelditu zirenak ohiuz agurtzeko; han ibili nintzen, baina ez zidaten entzun. Atera nintzen eguna Puertoko espexean dagoen lagun baten urtebetetze eguna zenez, telegrama jarri nahi nion. Autoan sartu nintzen, jarri behar niola eta jarri behar niola, baina ezin izan ginen Avilan sartu eta egun batzuk beranduago arte ez nion telegramarik jarri.

— Eta pentsatu zenuen lehen gauza?

— Poltsak eskuan nituela atera nintzen, anaia eta ikusi nituenean uste dut etxean sentitu nintzela, beste guztia atzera botata. Arrasatera iritsi eta herrian nengoela sentitzearekin irrifarrea ateratzen zitzaidan, harrera oso polita izan zen.

— Hemendik aurrera...

— Beno, lehenik apur bat zentratu egin behar naiz, gero lanera bueltatzeko, kamarrera naiz eta.


— **“Lau hilabeteetan bakarrik egotera behartu ninduten, zeldan sartuta”**

Deba Garaiko Eskolen arteko II. Olinpiada

Iaz Bergaran 1.500 umek hartu zuten parte

Datorren larunbatean, hilak 25, Musakolako Kiroldegian Deba Garaiko eskolen arteko bigarren olinpiada burutuko da, Deba Garaiko Udal Kirol Zerbitzuek antolatzen duten ekintza. Olinpiada honetan, Deba Garaiko edozein ikastetxetako 5. 6. eta 7. mailako edozein ikaslek har dezake parte, horretarako astelehena aurretik ikastetxean izena ematea besterik ez dagoelarik.

Kirol eta jolasen antolamenduari dagokionez, esan behar da bost multzotan banatu direla, honako hauek: lehen multzoa, herri kirolak, skate, eta gimkana. Bigarren multzoa, ur jokoak eta zirkuitoak. Hirugarren multzoa, doke, rugby, erreleboak eta bandera jokoa. Laugarren multzoa, ohe elastikoa, mi-



nitrampa, tirolina, eta borroka. Boskarren multzoa, eskalada, arku jaurtiketa, squash, eta ping-pong.

Talde guztiak, aipatutako bost multzoetatik pasatu behar dira, multzo bakoitza burutzeko ordu eta laurde-

neko denbora izango duela-rik. Beraz, partaide guztiek kirola egiteko arropa aproposa, bainujantzia, txankletak eta txanoa eraman behar dute.

Olinpiada, goizeko 10etan hasi eta arratsaldeko 6ak arte bukatuko ez denez, partaide bakoitzak bere bazkaria eraman behar du, eta Arrasateraino etorri ahal izateko herri bakoitzetik autobusak aterako dira, dōhaineko zerbitzua noski.

Olinpiada honen helburuak, adiskidetasuna bultzatzea eta aspaldiko jolas eta kirolak berreskuratzea lirateke, lehia zentzua alde batera utzirik. Iaz 1.500 neska-mutikok hartu zuten parte Olinpiadako lehen edizioan, eta aurten kopuru hori gainditzea espero da.



Arrasate Kirolak kili-kolo

Arrasate Kirolak esku-baloi taldeari liga joan den astean bukatu bazitzaion ere, mailari eusten dion ala maila galtzen duen jakiteko, oraindik itxaron egin behar du. Matematikoki arrasatearrek eutsi egiten diote mailari, baina diru arazoak direla eta goitik talderen batek jaitsi beharra izango balu, Arrasate Kirolakek galdu egingo luke maila. Aipatutakoagatik ziren garrantzitsuak Ormaiztegiko bi puntuak. Bi puntu horiek eskuratu ez zituztenez, Arrasate Kirolak taldeko jokalariek, euren etorkizuna ezagutzeko datorren ekainera arte itxaron behar dute

ESTETIKA ZENTRUA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Z a r r a o a


Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

M MIKEL

Eskaiola, pintura eta kortxoeko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE

PODIUMA

ZIGOR
URAINIrabazle bere
herriko lasterketan

Zigor Urainek 15 urte dauzka, txirrindularia da eta hain gazte izanik, oso jende gutxi lortzen duena lortu du, norberaren etxean irabazle ateratzea. Izan ere, Zigorrek joan den astean Musakolako jaietako lasterketa irabazi zuen, 49 kilometrotan beste 70 lagunei aurrea hartu zielarik. *"Izugarrizko poza sentitu nuen, irabazien nuen lehen aldian eta. Beno, beste behin ere irabazi nuen baina orduan partaide gutxi ginen. Nolakoa izan zen lasterketa? bada normala, erdialdean une txarra pasa nuen, baina gero ondo bukatu".* Zigorren hitzen arabera, sufritzen dakien mutila dela ikusten da, baita apala ere. Beharbada Marino Lejarreta, bere idoloaren izaeraren zerbait badauka arrasatear gazte honek. *"Hoberena da, tipo jatorra eta gainera bizikleta gainean izugarrizko klasea duena. Berak esaten duen bezala, bizikleta sufritzen baina ondo pasatzen ikasi behar da. Ni ondo pasatzen saiatzen naiz, nahiz eta askotan sufritu".*

Ondo pasatzen zuelako hasi omen zen Zigor txirrindularitzan, lehen pilotaria izandakoa eta mendizalea bada ere. Dena dela, bere aitak eragin han-

dia izan zuen Zigor txirrindularitzan hasteko orduan, hark ere zaletasuna izanik, erraztasun guztiak eman zizkion eta. *"Zazpi urte nituela erosi zidaten lehen txirrindua, eta hamabi urte egin arte harekin ibili nintzen; geroztik beste bi erosi dizkirate. Etxean lagundu egin didate, bai".*

Zigor Urainen ametsik ederrena, egunen batean txirrindulari profesionala izatera iristea bada ere, garbi dauka oraingoz txirrindua ezezik, ikasketak ere eskuartearen dituela. *"REMeko lehen maila egiten ari naiz, eta oraingoz ondo doa. Nik txirrindulari profesionala izan nahi dut, baina ikasi beharra ere badaukat. Ikasketak direla eta, ezin izaten dut gehiegi entrenatu, astean bakarrik pare bat aldiz".*

Ipuin gehienetan gertatzen dena gertatu dadila Zigor Urainen kasuan, hau da: ametsa egia bihurtu dadila. Oraingoz lehen urratsa eginda dago, behin garaitzen ikasi eta gero, ez dela ahazten esaten dute eta.

◆ Atzeratuen aldeko partidua

Datorren igandean, goizeko hamarretan eta erdietan Aretxabaletako futbol zelaian, bere garaian Errealak eta Athletic taldeetako jokalariek izandakoen arteko partidua ikusteko aukera izango da. Iribar, Satrustegi, Zamora, eta atzerako jokalariek handiak Ibarako futbol zelaian izango dira. Partidu hau Aretxabaletako atzeratuen aldeko batzordeak antolatzen du.

◆ Arrasate-Oñati


Bederatzigarren aldiz, datorren igandean Arrasate eta Oñati arteko krosa burutuko da. Lasterketari goizeko hamarretan emango zaio hasiera, eta izen ematea lasterketa hasi baino ordu-erdi lehenago itxiko da. Aurrez izena eman nahi duenak, Aloña Mendi Elkartearen, Arrasate Kirolak-en, edo lasterketa egunean Monte tabernan egin dezake.

◆ Txirrindularitzan Urain irabazle

Pasa den asteburuan, Arrasateko txirrindulariek egin zuten onena dudarik gabe, Zigor Urainen garaipena izan zen. Garaipen hori Musakolako jaietan burututako lasterketan iritsi zen, lehen urteko kadeteen mailan, beraz etxean irabazteagatik balio bikoitza. Gainontzeko mailetan denetarik egon zen, aipagarriena Arantzazurako igoeran, Ruben Ramosek lortu zuen hirugarren postua izan zelarik.

◆ Txirrindua umeentzat

Deba Garaia Txirrindulari Taldeak antolaturik, igandean neska-mutikoen arteko irteera zikloturista egingo da. Irteera Tren geltoki zaharraren aurrean izango da, goizeko hamarretan, Aramaiotik buelta egiteko asmoz. Antolatuak Ertzaintza eta Gurutze Gorriaren laguntza izango dute.



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal Inprimakiak
- Bulegoko materiala


Lotgailu edo ligamentuen lesioak

Giltzadura bat bere zabalerari dago-kion baino gehiago behartzen denean, lotgailuaren lesioa agertzen da orduan. Ondorioz, lotgailua distenditua eta urratua gertzen da, eta urraketa horrek lotgailuaren zuntz edo fibrak kaltetu litzake, batzuetan gutxi, baina beste batzuetan lotgailu osoa gerta daiteke hondatua. Noiz behinka urradura hori oso handia izaten da, eta hezurra txertatzen deneko ingurua ere urratzen du; aré gehiago, gerta liteke hezuraren zatiren bat ateratzea ere.

Urradura edo desgarroa partziala izanez gero, hau da,

zuntzen zati bat bakarrik apurtuz gero, giltzaduraren estabilitatean ez du eraginik. Baina urradura hori osoa izan eta lotgailuguztia apurtzen bada, orduan giltzadurak estabilitatea galtzen du. Zaintiratu edo esgintzearen sintoma eta ezaugarriak honako hauek dira:

- Mina sentitzen da giltzadura mugitzean edo bere ingurua ukitzean.
- Hantura (handitu eta gorritu egiten da).
- Odol-jarioa, eta honek hematoma sortzen du (odol-bildua).
- Giltzaduraren inestabilitatea, urradura osoa denean.



Tratamendu egokia hau izango litzateke:


- Lesioaren gainean hozta jarri.
- Giltzadura ibilgetu.
- Egun batzuetan, derri-gorrezko geldialdia.

Pertsona askok, eta hauen artean kirolariek, ez dituzte bihurtura edo zaintiratuak behar bezala tratatzen. Benda bat jarri eta besterik gabe,

sendatuko direla pentsatzen dute. Baina zaintiratuak edo esgintzeak behar bezala osatzen ez direnean, arazoak ematen jarraitzen dute luza-roan! Beraz, kasu gehienetan 10-15 egunez ibilgetu beharra dago afektaturiko giltzadura igeltsu edo ferulaz.

Gehienetan agertzen diren zaintiratuak orkatilakoak izaten dira, baina belauneko, ukondoko, eskumuturreko eta besaburukoak ere bai. Orkatila-mailan lotgailu asko dago, eta lesioaren arabera batzuk edo besteak urra daitezke. Ondo osatzen eta sendatzen ez bada, gerta daiteke bizitza osorako geratzea orkatilan inestabilitatea.

Eukeni & Arantxa



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgariak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79-24 12 eta 79 99 58




P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

Batuta

Aitor Zeziaga



Aitor Zeziagak 33 urte dauzka eta ez da musikaria, San Juanetako danborradako zuzendaria baizik. Txiki txikitik sukaldari, gero kupelgile, beranduago danborrero, baita banderadun ere, eta hamasei urte zituela Aitor Zeziaga nagusien danborradan parte hartzera pasatu zen. Era horretan Aitorrek, inoiz nagusien danborradan izan den danborrero gazteen bihurtu zen. "Beharbada, nire bizitzako pozik handiena izan zen, niretzat San Juanetako danborradak esanahi sakona dauka eta. Danborrada niretzat zer den azaltzea oso zaila egiten zait, ez daukat hitzik hori adierazteko. Behar bada, San Juanetan, bakarrik danborradagatik gelditzen naizela esatea adierazgarria izan daiteke".

Argi dagoenez, Aitorrek San Juanetako danborrada bihotzean dauka. Akaso horregatik, duela lau urte danborradako zuzendari izendatu zuten. "Aldaketa izugarria izan zen. Danborrero soilak nintzenez, zuzendariari ez nion aparteko jaramonik

egiten, nire lan bakarra danborra jotzea zen eta lasai joaten nintzen. Zuzendari izendatu ninduten, izugarritzko poza hartu nuen, baina baita ardura handia ere, jendeak gauzak ondo egitea zaindu behar nuen eta. Zuzendari izendatu nindutenetik danborrada aldatu egin da niretzat, oso kontzentratuta joaten naiz eta kanpoan zer gertatzen den ez dut jakiten. Danborrada bukatzen denean, jendea galdetu behar izaten diot, ea ikusle asko zegoen, nola ateratzen den..."

Danborradan bertan ezezik, aurreko egunetan ere entseietan, ezerekin ordez, lana egin behar izaten du Aitor Zeziagak, gero guztia ondo ateratzen. "Maiatzaren hasieran ekiten diegu entseiei, ume eta nagusiekin. Aste hiru aldiz entseiatzen dugu eta nahiko izaten da, ez bait du uste inoiz gaizki ateratzen zaigunik".

San Juanetan, danborradagatik gelditzen naiz herrian

Txio txioak

Gorosarriren kontzertua Hernanin
Gaur, Eskoriatzako Gorosarri Abesbatzak eta Arrasate Musikaleko Orkestrak kontzertua eskainiko dute Hernanin. Kontzertu honetarako eskoriatzarrek Vivaldi eta Gorosarri konposatzaileen lanak prestatu dituzte.

Gorosarriren egin beharra hil honetan ez da Hernaniko kontzertura mugatuko, datorren larunbatean ere beste kontzertu bat eskaini beharko dute eta, Arabako Oionen hain zuzen ere. Horretaz gain, datozen San Pedro jaietarako eskoriatzarrek herri mailan zerbait egin nahi dute, horregatik egun hauetan musika banda eta txistulariekin entseiatzen ari dira.

Matrikula irekia

Datorren ekainaren 14era arte, Arrasate Musikaleko kurtso ezberdinetarako matrikula zabalik dago, arratsaldeetan Setatik 8ak bitartean egin daitekeelarik. Solfeoa ikasten hasteko baldintza bakarra, gutxienez zortzi urte izatea da eta tokia mugatuta dago. Solfeoko bi kurtsoak gaudituta dauzkate, instrumentoak ikasten hasi ahal izateko izena emateko aukera daukate, flauta, oboea, klarineta, fagota, tronpeta, tronpa, tronboia, perkusioa, bibolina, txeloa, pianoa, akordeoia, txistua eta kitarra ikasteko aukera hain zuzen.

Trukea

Aretxabaletako Abesbatza, urtero Frantziako Villeneuve de Marsan hirira joaten da. Aurten ere gauza bera egin du. Atxabaltarrak Frantzian joan den asteburuan izan dira. Frantziarrek gero bueltatuko dute bisita.

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu
Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

Eslu ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

“Elebitasuna eta hizkuntz jabekuntza” kongresuaren ondoren, Irakaskuntz eredu elebidunei buruz zenbait burutapen (2)


Aurreko artikuluan murgiltze ereduaren diseinuari buruzko zehaztasun batzuk eman genituen; ordukoan bereziki programa hauen funtsean dauden oinarri metodologikoak aztertzen genituen. Gaurkoan, eta burutapen labur hauekin bukatzeko, programa hauen emaitzetatik ateratako zenbait ondorio azalduko ditugu.

Eredu hauekin lortutako emaitzek honako hau erakusten digute: programa hauek jarraitzen dituzten ikasleek bigarren hizkuntzan oso emaitza altuak lortzen dituzte, beti ere beraien ama

hizkuntza kaltetu gabe. Honetaz gain, emaitza akademikoak eta garapen kognitiboak ez da irakaskuntza elebakarra jarraitzen duten haurrena baino baxuagoa, alderantziz, kasu askotan bi arlo hauetan emaitzak altuagoak lortzen dituzte.

Emaitza hauek maila sozioekonomiko ezberdinak dituzten umeak aztertuta lortu dira eta ez bakarrik egoera sozioekonomiko pribilegiatua daukaten haurren artean.

Aipatutako emaitzak murgiltze ereduetan erabiltzen den metodologiari esker ematen dira alde batetik; hau da, programa hauei esker bigarren hizkuntzan gaitasun




komunikatibo altua lortzen da eta, honela ama hizkuntzan komunikazio gaitasuna ere aberastuta ateratzen da.

Beste alde batetik, emaitzak oso lotuta daude ikasleek hizkuntza biekiko dituzten jarrerekin, kasu honetan bai adina eta bai gurasoen jarrera izango direlarik faktore oso garrantzitsuak.

Adinari dagokionez, bigarren hizkuntzarekiko jarrerera positiboak lortzeko, aipatu egin behar dira irakaskuntz goiztiarraren abantailak: haur txikiak inguruko helduekin komunikatzeko izaten duen beharrak, ahalbidetu egiten du haur hauen gaitasun komunikatiboaren garapena.

Gurasoen jarrerak faktore erabat erabakiorra dira programa hauetan haurrek lortzen dituzten emaitzak eta beraien arteko ezberdintasunak justifikatzeko. Horregatik da hain garrantzitsua gurasoek programa hauek beren borontatez aukeratzea.

Klarion taldea



Ur antzerki taldeak

aurkezten du:

“Antiheroes”

- **Maiatzak 18**
larunbata
- **Gaueko 10.30etan**
- **Amaia Antzokian**
- **Sarrera:500 pta.**
Gazte Txart.:300 pta.



Udal Elkarteko Gerentea

• German Berezibar •

German Berezibarren R-18ak, zortzi urte dauzka eta 150.000 kilometro. "Egin dudan bidaiarik luzeena, egun batean Lisboa-ra joatea izan da. Denbora honetan ez du aparteko aberiarik izan, ezta istripurik ere". Germanek abiadura normalean gidatzen duela adierazten badu ere, ez azkar eta ez poliki, abiadura handiegia eramateagatik multaren bat jarri izan diote. Irrati-Kaseta badu baina, Germani irratia entzunaz gidatzea gustatzen omen zaio, "informatiboak entzutea gustatzen zait gehien bat, musika ez gehiegi".



CITROËN ZX BERRIA

TXAPELDUN JAIOA



Citroën ZXak, Paris Dakar munduko Rallierik gogorreneko irabazleak, Dakarreko oroigarri ahaztezina emango dizu. Zatoz bila. Citroën banatzaile guztiak asteburuan zabalik.
CHAPIME TAILERRAK.

**Maiatzaren 18 eta 19an
(Larunbata eta igandea)
zabalik**

Arrasaten, mendi astea

Apirilean hasi eta maiatzean izan ditugun egun euritsu eta hotzak igaro ondoren, bada garaia zeozer beroketako. Izango dugu egokierarik Arrasaten, maiatzaren 20tik 26ra arte, zenbat gura gauza ikusteko. Polita izango da mendizale guztiontzat, gure herriko harmailetatik urten eta geografian barrena amets egiteko lo goxoak izango ditugu aurrez-aurre.

Maiatzaren 26ean, hauteskunde egunean, mendi-bizikletan Leintz bailara zeharkatzeko aukera izango da. Aurten Arrasate-Leintz bailara-Arrasate ibilaldia antolatatu du Besaidek.

Orainez gero, kalean izango da makina bat kartel; eskuliburutxo ere hortxe izango duzue, aste osoko informazioaren berri emateko eta domekan bizikletan joan gura duten guztiek, bertan izango dute, mapa eta guzti, ibilbideari buruzko zenbait xehetasun.

Hasiera iaz bezala, kiroldegian: goizeko 9etarako, bukaeran kiroldegian dutxatu ahal izateko. Dena den, aurten izango da nobedaderik: aukera dago, gura izanez gero, errepidez Bentafriara joateko, Gatzaga zaharretik baina.

Lastimie. Eguraldi honekin ezer gutxi egin daiteke: dena lokatza, lupetza sendoa,

alde guztietan euria dariela zuhaitzei. Horregatik edo, agian kamioi batean bizikletak sartu eta kurtzera joango gara, gero bertatik Jarindora bidea: gorabehera gutxi duen bidea da, eta gero lau-lau, Jarindo ondoko malkar handiskara heldu arte. Dena igo eta Jarindo gainetik, zeharrean Bentafriaraino.

Bentafrian hamarretako ederra; Badakizue, ez eroan ezer, bertan izango dugu gura adina gauza eta.

Bentrafiatik, Dorletako Ama dagoen tokira joan, kamiñeruen etxera, eta bertan eskumatara hartu eta kilometro erdi ingurura heltzekoan, ezkerretara hartu baserri batzuk zeharkatuz, Uxar aldera

iristeko. Ondoren, Bolibar auzorantz joko dugu; hortik Erañara eta gero Mendiolara. Ingurune Boragarria: udaberrian dagoenako sahas, pago, haritz, urki, etab. loratuta egonik, aparta izango da gurdibideak, eguzki izpiak, zeharkatzea.

Mendiolatik Areontza auzora eta gero Urkulu, Larrño eta Bedoñara.

Denok ezauketan dituzuen bide eta lekuak dira: ez dago galtzerik horrelakoetan eta gainera, bidea ondo markatuta egongo da.

Badakizu! anima zaitetz eta domeka goizeko ajeak asintzeko, irteera zoragarri hau baino hoberik ez duzu izango. Ikusiko dugu elkar!

K. U.

EUSKAL FAMILIATAN

IKASII!!



Euskara ikasten ari zaretentzako egonaldiak euskal familiatan.

Informazioa eskuratu nahi baduzu, jo Udaletxeko Euskara Zerbitzura. Tfnoa: 79 09 00



**25URTE
BAILARAREN
ZERBITZUAN**

**1991-92 IKASTURTERAKO
IZEN EMATE EPEA
(Maiatzaren 15etik 30erarte irekia)**

Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Gatzaga, Eskoriatza eta Bergara, **BAILARA OSOARI IREKIA** Bailarako gazteen topaketak, elkarbatzeak eta komunikazioa indartzen saiatzen gara.

Laborategi, liburutegi, bideo, ordenadore, proiektuak, gai interdisziplinarrak eta beste zenbait baliabide erabiltzen ditugu.

MONOPOLIORIK GABEKO ESKOLA, DENONA ETA ERABILTZAILE GUZTIONTZAKO **BALIAGARRIA** -Guraso, langile, eta beste zenbait organo kolektibok parte hartzen dute bere gobernu eta funtizonamenduan.

ETORKIZUNARI BEGIRA DAGOEN HEZKUNTZA DEFENDATZEN DUGU. Irakaskuntza Sistemaren Berrikuntzan lanean dihardugu. Batxilergo Orokorra, Batxilergo Zientifikoa eta Humanistikoa, 3. mailako modulu profesionala.

NHizkuntzen bultzadan aintzindaria = frantsesa eta ingelesaren irakaskuntza.
Norberaren ezagupena, giza-balore indibidual eta sozialen sendoketa eta orientazio pertsonalean eta profesionalean laguntza eskeintzen dugu.

Kirola osasun iturri bezela eta denbora librearen erabilpen egokia hezkuntzaren osagarritzat hartzen dugu.

Izen emateko tokia: Almen Ikastola, Torrebaso z/g.
Tfnoak: (943) 79 56 89 / 79 57 00 Eskoriatza


Aste gazte

...Gazteek alkohola eta bestelako drogak kontsumitzeko moduak aldatzen dituzte, horrela helduen munduko jokotik kanpo gelditzen direlakoan. Baina argi dagoena da gazteen asteburuetako gehiegikerien onuradunak soldadutzara bidaltzen dituztenak eurak direla, edota, ahal dutenean, lanean esplotatzen dituztenak...

Askagintza

Bekak

• Ingelesa, frantsesa edo alemanera-ikastaroak atzerrian burutzeko dirulaguntzak. Eskatzaileak: UBI (COU), 3. BBB (BUP), LH II (FP II) eta IEE 2. zikloko (REM) ikasleak. Baldintza: 1990-91 ikasturtean bekaduna izatea. Dirulaguntza: joan-etorriko bidaiari gehi alojamendu, mantentimendu eta ikastaro-gastuak. Epea: ekainak 6. (EHAA 91-05-08),



• Literatur sorkuntzarako dirulaguntzak. Modalitateak: olerkia (12 laguntza), narrazioa (12), humanistika arloko saio eta ikerketa lanak (12) eta arlo bereko obren itzulpenak (12). Dirulaguntzak: bakoitza 800.000 pezetakoa. Epea: maiatzak 31. (BOE 91-04-02).

Besaide: gazte-ekintzak

• Maiatzak 17-18-19: orientazio ikastaroa. 14-18 urte bitarteko gazteei zuzendua. Helburua: mendi mapak irakurtzea eta brujula baten bidez mendian orientatzea. Tokia: Leizargarateko aterpea.

Lehiaketak

• "Barcarola" poesia eta ipuin-lehiaketa. Gai libre. Sariak: a) Poesia: 350.000 pta. b) Ipuina: 200.000 eta 60.000 pezetako akzesita 2. Lanak aurkezteko epea: maiatzak 23.
• Erretereria Hiriko III Komiki-Lehiaketa. 16 eta 26

urte bitarteko gazteei zuzendua. Txuribeltzez. Euskaraz ala gazteleraz. Pertsonaiek ezezagunak eta originalak izan behar dute. Formatoa: bertikala, 18x25 zm. Sariak: 50.000, 20.000 eta 10.000 pta. Lanak aurkezteko epea: ekainak 7.

• "Maddalenak 91" VII. Kartel-Lehiaketa (Erretereria). Koloretan. Neurriak: 50x70 zm. Gaia: jaiak. Teknika libre. Sariak: 130.000 pta. eta sari berezia. Lanak aurkezteko epea: ekainak 7.

Kanpamenduak

• Gipuzkoako Diputazioak Belaguan eta Pagoetan antolatutako kanpamenduetan parte hartu nahi izanez gero, lehenbailehen apunta zaitetz.

a) Belagua: 16-21 urte bitarteko gazteentzat, uztailea eta abuztuan, 6 egun. Ekintzak: kirola-abentura (jaitsierak, mendi-bizikletak...) Prezioa: 10.000 pta.

b) Pagoeta: 15-21 urte, uztailea eta abuztuan, 5 egun.

Ekintzak: ingurugiroa eta naturarekin lotuak. Prezioa: 7.000 pta.

Mountain Bike

• Proba popularren egutegia: maiatzak 26, Tolosan (trabesia), ekainak 2 Azkoitia (txapelketa), ekainak 9, Irunen (trabesia), ekainak 30, Zumarragan (txapelketa), uztaileak 14, Erretereria (txapelketa).

Ikastaroak

• "Hezkuntza kalean" ikastaroa, Gasteizko "Accion 21" Animazio-Eskolak antolatuta. Maiatzaren 25 eta 26an. Iraupena: 12 ordu. Matrikula: 3.000 pta. Inskripzioak: maiatzaren 20a arte.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

100 SERIEKO ROVER BERRIA

ROVER HANDIEN INDAR GUZTIA.

Miresgarria, 100 serieko Rover berria. Txikia, baina Rover handien indar guztiarekin. Teknologiarik aurreratuena du bere K serieko motore berrian -16V GTi-antaleazio arinaz egina 95CVko indarra eman diezakeena.

Eta zuri, eskatu nahi diozun guztia. Zeu bezain aparta du bere ekipamendua.

Ausartu eta helduiozu. Rover berria da 100 x100. *



100 SERIEKO ROVER BERRIA
ROVER 100 x 100



* Azken salneurri gomendatua, BEZ eta garraro-gastuak barne. Ekipamendua: Erloju digitala. Atzeranzko isplua eskuinean ere. Bira-kontadorea. Ixte zentralizatua. Aleaziozko llantak. Aurreko lehoien jasogailu elektrikoak. Atzean spoiler-a. Atzean ere segurtasun-uhalak. Esarleku deportiboak. Dotzaintza lunbarra. Atzeko eserleku tolesgarria 60/40.



ETXEBIZITZAK

- **Bi oheko logela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisua salgai Iturriotz kalean.** 89m², hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua, dena kanporuntz. Dei egin 8etatik 10etara 79 76 56 tfnora.
- **Etxebizitza salgai Obenerrekan.** Guztiz berriztua. Egongela, bainugela, sukaldea eta logela bat jantziak. Beste bi logela. Trastelekua. 78m². Bakarkako berogailua Ganbara. Deitu inongorik gabe 79 98 83 tfnora. Gaueko 8etatik 10k bitartean.
- **Uribe auzoan etxebizitza salgai.** 107 m², garajea, trastero eta ganbara. Dei egin gauean 79 34 23 tfnora. edo denda orduetan 79 98 94 tfnora.
- **Erguinen etxebizitza salgai.** (Garajea aukeran). 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua. Bista ederrak. Gas naturala. Tfnoa: 79 93 42.
- **Naturazaleok: hondartza ondoan dagoen apartamendu-estudioa alokatzen dut.** Paraje naturala. Guztiz ekipatua. Vera-n (Almeria) Harremanetarako jo 94- 467 47 07 tfnora.
- **Baserrira alokatu edo erosiko genuke Deba Garaian.** Deitu 79 75 96 tfnora. Jon.
- **Pefiscolan sei pertsonentzako bungalow-a alokatzen da uda osoan.** Dei egin 27 01 37 tfnora. Itziar.

ANA

- **Jaun-andereok:**
-Egunean hiru ordu libre eta telefonoa badituzu.
-Beste edozein iharduerarekin bateragarria.
-Irabaziak: 100.000tik 300.000 pta. hilean, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzan.

-Aurrez ordua hartuta bakarrik. Deitu 77 14 81 telefonoan 4etatik 7etara.

- **Euskarazko klase partikularrak emateko irakaslea behar da.** Tfnoa: 79 49 18.
- **Estetika ikasketak bukatu ditut eta lanerako prest nago.** Tfnoa: 79 19 20
- **Gizon gaztea lan egiteko prest.** Egun erdi, goizez. Dei egin 79 75 43 tfnora. Jesus.
- **Cobol-eko klase partikularrak hartuko nituzke.** Dei egin 15.30etatik 17.30etara. Tfnoa: 77 08 15. Mikel.
- **Tailer batean lan egingo nuke mekanika aprendiz bezala.** Tfnoa: 79 96 10.
- **Ileapaindegi batean egingo nuke lan.** Ikasketak bukatu ditut. Tfnoa: 79 56 36.
- **Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke.** Dei egin 79 13 26 tfnora. Maite.
- **Neska euskalduna behar da Gasteizen.** Tfnoa: 79 25 98.

SALEROSKETAK

- **Bost laguntzako Hergo markako karabana** abanxe eta guzti salgai. Tfnoa 78 17 88.
- **Egoera onean dagoen Renault 6 GTL bat** erosiko nuke. Lanorduetan 77 09 40.
- **R-21, 21 Turbo autoa salgai.** 38.000 km, garajea lo eginda. Tfnoak: 79 34 23, 79 98 94
- **Karro-denda salgai.** Alpen-Kreuzer GT modelokoa (2 logela, 6 pertsonarentzat) gainerako guztiekin. Tfnoa: 79 66 31.
- **Amstrad Cpc 6128 kolorekoa salgai.** Inprimagailua, arkatz optikoa, ramdisk, jokoak, testu prozesatzailea, musika, marrazkiak. Aldizkariak eta liburuak ordenadorearekin ematen ditut. 60.000 pta. Dei egin bazkal orduetan 79 62 94 tfnora.

- **Stratocaster-en kopia saltzen da prezio onean.** Interesatuak dei egin 79 36 83 tfnora. 13.30etatik 15.00ak bitartean edo 22.00etatik aurrera, astean zehar. Patxi.
- **Teoría elemental de grupos "E. Bujalance-na eta "Anillos y cuerpos conmutativos" Jose M. Garboarena salgai,** (zientzia zehatzak), berri-berriak. Dei 79 92 29 tfnora. 20.30etatik aurrera.
- **Karrerako bizikleta salgai.** Arina, polita, gutxi erabilia. Pezio interesgarria. Tfnoa: 76 32 69
- **Algebra liburuak salgai.** (UNEDen Zientzia zehatzak karrerako egokitze mailan erabiltzen direnak). Estrenaitu barik eta prezio onean. Dei egin iluntzeko 8.30etatik aurrera 79 92 29 tfnora.
- **Bederatzi hilaibeteko txakurra salgai.** Informazio gehiagorako dei egin 79 82 91 (Tomas) edo 79 49 49 (Iban) telefonoetara.
- **Egoera onean dagoen bateria merkea erosiko nuke.** Dei egin 8etatik aurrera 79 52 31 tfnora Iban.
- **Aulki anatomikoak saltzen dira prezio onean.** Informazio gehiago 79 06 66 tfnoan. Goizeko 10etatik 13.30ra arte.

DENETARIK

- **Eguerdiko sei terdiak dira.** Arrozesnea edarra edarra, edarra dago. Urbian euria ari du, baina, Matxinbentan aterri. Gorantziak. Aitziber zer moduz Goñin? Jo ta fuego "Txarabeltz" sektorea.
- **Irlandatik zuzenean:** Kaixo! Hemen gaude Guinnessaren menpean askatu ezinak, ea zuek kalimotxo kupela bat bidaltzen diguzuen. Laster bueltan izango gara txikiteo gudaria egiteko. OK. (Aitziber eta Miren). Gora Euskadi!
- **Kalealdetik Ferixalekurako bidean estutxe larrosa bat galdu nuen,** barruan agenda eta josteko gauzak nituelarik. Norbaitek aurkitu badu dei egin dezala 77 06 51 tfnora.



ARRASATEN HILDAKOAK



Ernabidi Iturriz Juan Jose,
maiatzaren 4ean. 77 urte
Agirrezabala Imaz Mikaela,
maiatzaren 7an. 84 urte
Rodriguez Zubiarain Hortensia,
maiatzaren 9an. 73 urte
Madinabetia Arriaran Migel,
maiatzaren 9an. 69 urte
Ipiña Ormaetxea Angel,
maiatzaren 10ean. 66 urte
Arana Salinas Jose Ramon,
maiatzaren 11n. 55 urte
Arkaux Iturriaga Rosario,
maiatzaren 13an. 68 urte
Velasco Fernandez Rosario,
maiatzaren 13an. 83 urte

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Kontxi Malet

Mankomunitateko soziologoa



- **Dantza sueltoan ala helduta?** Sueltoan.
- **Tabako gorria ala beltza?** Ez bata eta ez bestea, kea ez zait bat ere gustatzen.
- **Laneko zortzi orduak, jarraian ala bi zatitan?** Bi zatitan.
- **Barazkiak ala okela?** Ez naiz barazkijalea, baina aukeran barazkiak.
- **Mendia ala hondartza?** Bietara joatea gustatzen zait, baina mendiak nahiago.
- **Oporrak hotelean ala kanping-ean?** Kanping-netan egoten ohituta nago eta oso pozik gainera, baina agian hotelak erosoagoak izango dira.
- **Parkeak ala jardinak?** Parkeak.
- **Idazteko, boligrafo beltza ala urdina?** Urdina.
- **Kontuak, eskuz ala kalkuladoraz?** Kalkuladoraz, eta ahal izanez gero, ordenadorez.
- **Kirola ikusi ala egin?** Egin, ikustea ez zait bat ere gustatzen.
- **Bazkaldu ala afaldu?** Bazkaldu barik pasa naiteke, baina afaldu barik ez.
- **Frakak ala gonak?** Frakak.
- **Ogia, integrala ala normala?** Normala.
- **Liburua ala egunkaria?** Liburua, beti daukazu ondoan eta beti irakur dezakezu. Egunkaria irakurtzen duzunean, kitto.
- **Etxe berria ala berritua?** Sartuta nagoen munduan, berritua.
- **Tabernak ala pub-ak?** Zarata gutxiert dagoen tokian.
- **Janaria, gatzduna ala gatzgabekoa?** Gatzduna.
- **Rubioak ala beltzaranak?** Beltzaranak gustatu izan zaizkit beti.
- **Apartamentua ala pisua?** Beno, bada apartamentua.
- **Ura txorrokoa ala botelakoa?** Txorrokoa.
- **Belarritakoak ala eraztunak?** Eraztunak, belarritakorik ez dut erabiltzen.

Artxibotik

Zer dakigu Etxezarretaz?

Edade batetik aurrerako jendea alde batera utzita, gazteok, gehienok behintzat, ezer gutxi dakigu Etxezarretaren gorabeheraz. Etxezarreta aipatuz gero, berehala datorkigu gogora Diputazioak Etxezarretatik bertatik saihebideta pasatzeko asmoa erakutsi duela, eta hori, ezin onar daitekeela, besteak beste, inguru ederrak eta lorategi botaniko bitxi bat dituelako.

Hamaika galdera Etxezarreta dea eta esate baterako, nor zen lorategi botaniko horren ugazaba? Ba al dakigu nor bizi zen bertan, ba al daki inork esaten nola erre zen? Zer dakigu Etxezarretaz?

Gaurko helburua ez da historia osoa kontatzea (nork ezagutzen du?). Gaurkoan, han-hemenka galdetuz jakin izan duguna kontatuko dugu zertzeladetan.

Kontatzen dutenez, joan den mendearren ondarrean jaiotzez Madrildarra zen ugazabak hartu zuen Etxezarreta, Rafael Ariza zen. Ikasketak kontuan azkarra, bi karrera eskuratu zituen eta (ez nolanhikoak gainera): medikuntza eta portu, mehategi eta kanaletan injinerutza. Geroxeago, ur kontuan espezializatu, eta Etxezarretan finkatu zen: bertan Gipuzkoa guztiko urrik onena zegoen bere ustez. Kapritxosoa, loreak eta zuhaitzak maite zituen eta bertako nahiz atzerriko ekarritako landareekin jantzi zituen inguruak. Ziur egon bere lorategia bezain ederrik ez duela Arrasatek ezagutu.

Rafael Ariza irakurle amorratua zela dudarik ez dago. Etxezarretan Gipuzkoako bigarren liburutegi onena bildu zuen, Gipuzkoako bigarrena diot, eta heriotze ordua iritsi zitzaionean, Diputazioak ez zuen nahi izan (ez omen zuen sosik) liburu horiek erosi. Ondorioz, familiak pixu prezioan Madrilera saldu zituen. Bi trailer liburu eraman omen zituzten.

Rafael Ariza Etxezarretan enterratu zuten. Bistan da, beraz Etxezarretak baduela zer konta eta zer defenditu. Gaurkoz, nahikoa.

A. O.


comercial
san juan

Garibal 12,
Tfnoa: 79 13 05

hikein
ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,
Tfnoa: 79 13 84





Biteriren monumentoaren aurrean. 1934.

Buruan txapela ala ile engominatua, txarolezko zapatak ala ezpartinak, gorbatarekin ala gabe joan, zalantzarik ez dago gerra aurreko gazteek bazekitela dotore jazten.

Bergaran ezezik, Mondragoen ere bai. 1934eko igande eguzkitsu hartan, meza entzun eta gero txikiteoari ekin zioten argazkiko gazteek. Kalean gora eta behera zebiltzala, Biteri lorategian, oraindik somatu ere egiten ez zuten etorkizunerako oroimena uztea erabaki zuten. Ea, jakaren botoiak ondo lotu, sartu egunkaria kabitzen den lekuan eta ahal duenak -

edo dakienak- iribarre egin dezala.

Biteriren oroitarria moztuta agertzen bada ere, mondragoetar gazteak osorik azaltzen zaizkigu. Ezkerrik eskuinera German Sagasta "Mane", Angel Uribarren "Tati", Santos Sologaistoa, Benito Etxebarria Mondrako atezaina izango zena, Sabin Arrieta eta Periko Arriola "Solozahar".

**PUB
HAIZEA**



ENARA 
OSAGARRIAK

Maialako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



Arrasate Press eta ATBri

BERTSOTAN


Oso gustora gaudu
 zure abuztuarietan
 zati onena da zelebreriaz
 Astero jarraitu horrela
 zure abuztuariak dukatzen.

E BILEAK

~~Errika~~ ~~Errika~~
~~Jose~~
 Poutz ~~Alonso~~

Arrasate, presako
 langile lineak.
 Bertso onekin datoz
 Eskerrik onenak,
 zure ematen dituz
 fotografi denak
 abuztuari haurk
 dira gustuz onak

(Doimua: NIRE SENTIMEN
AK)



ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15



77 08 15

Elantxobe (Habanera)

Elantxobe (Habanera)

Elantxobe, itsas herri bitxia
 itsasoa dozu aurrean.
 Harek laztantzen zaitu etengabean,
 musu emango deutzazu lakoan.

Ondo, baina, ezagun dozu eta
 ez zara, ez, harekin fio.
 Horregatik mendiruntza ihesi zoaz,
 harengandik ijo ta ijo.
 Horregatik mendiruntza ihesi zoaz,
 zu harengandik, gora ta gora, ijo ta ijo.

Aspaldiko itsastarren kabia,
 bakezale, herri lasaia.
 Egunak ta urteak igaro arren,
 lehengo haretan gorde dozu kaia.
 Tristura bat dozu baina mozuan,
 ez dakit nik nundik datorren.

Ez ete da atzera jo nahiaren grina,
 ez dozu-ta gaurkoa aituten.
 Ez ote da atzera jo nahiaren grina,
 lehengo mundura ez dozu-eta gaurkoa aituten.

Atzerritik, nator gaur nekaturik,
 noiz helduko ete? buruan.
 Zure kalekka estuetan barrena,
 jaitsi nahi dot ta pausatu portuan.

Ez dago, ez, zulakorik munduan,
 mila bazter dot nik ikusi,
 guztiz eder, ikusgarriak izanda be,
 zure aldean, danak itsusi.
 Guztiz eder, ikusgarriak izanda be,
 zure aldean oi! Elantxobe, danak itsusi.

Juan Luitxi Berriluky

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



J. M. Heriz

Konpromozurik gabeko
 aurrekontuak


Otalora Lizenziatua. Arrasate

20 ASTELEHENA

- 18.30 **Teletestua.** Era guztietako iragarki eta abisuak.
- 19.30 **Bapirulauke,** umeen saioa, aste honetan S. Andresko herri eskolan grabatua.
- 20.00 **Berriak,** asteburuan Arrasaten gertatutako guztiaren berri, Koldo Rodriguezen eskutik.
- 20.15 **Mondrasport,** ATBren kirol-saioa, Beñardo Kortabariak zuzenduta.
- 20.25 **Saltsa Maltzan,** Jaione Olabek pipar beteak prestatuko ditu.
- 20.35 **Berriak** (errepikaldia)

22 ASTEAZKENA

- 19.00 **Teletestua,** era guztietako iragarki eta abisuak
- 20.00 **Berriak,** Koldo Rodriguezek aurkeztutako albisteak.
- 20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu,** Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzentzen duen mahaingurua. Gaia: Udal hauteskundeak Arrasaten. Gonbidatuak: alkategai guztiak.



21.10 **Berriak** (errepikaldia)

21 ASTEARTEA


- 11.00 **Teletestua.**
- 12.00 **Bapirulauke** (bezperakoa)
- 12.30 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.50 **Mondrasport** (bezperakoa)
- 13.05 **Saltsa-Maltzan** (bezperakoa)
- 13.15 **Bapirulauke** (errepikaldia)
- 14.00 **Berriak**

23 OSTEGUNA

- 11.00 **Teletestua**
- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
- 13.10 **Berriak** (errepikaldia)

24 OSTIRALA

- 19.00 **Teletestua**
- 20.00 **Berriak,** ATBren informatiboa, Begonia Garaik aurkeztua.
- 20.20 **Erretratoa,** J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: Agustin Azkoaga, Roneon lan egindako jubilatua eta zinegotzi izana.



20.50 **Musikantoi,** Patxi, Pepe, Asier eta Mikelek egiten duten saioa. **Berriak** (errepikaldia)

25 LARUNBATA

- 11.00 **Teletestua**
- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)
- 12.50 **Musikantoi** (bezperakoa)
- 13.30 **Berriak** (errepikaldia)



ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDAK

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

SUKALDIAK

Zure etxebizitzarako apainketa-
-prolektuak egiten ditugu

eya

Sukalde eta bainugelako altzaritan
espezializatutako denda

Ignazio Zuloaga 4, Tfnoa: 79 05 07



Telebegi

Andoni Urzelaik joan den astean idatzitakoak ematen dit aukera azken boladan bueltaka dabilkidan ideia bat planteatzeko, ATBren etorki-zunari buruz. Gure telebistak urte l'erdiko bidea egina du eta lehen balantzea egiteko ordua izan daitekeela uste dut.

Hasierako helburuak zenbaiteraino bete diren ez dakit. Garbi daukat, ordea, ATB gaur dena baino hobea izan daitekeela, eta ahaleginak egin beharko ditugula hobea izan dadin. Eta horretarako, bertan inplikaturik gaudenon eritziez gain, oso inportantea litzateke ikusleek ere jasotzea. Alegia, zer den ikusleari gehien gustatzen zaiona eta zer gutxien, beste hark esaten duen bezala, «zer dagoen faltan, zer soberan», ea Andonik zioen bezala *Rambo* eta *Falcon Crest* eman behar diren, ea zer hobetuko luketen...

Behar bada Arrasate Press bera izan daiteke bide egokia. Agian galdeketa orri bat edo prestatu beharko litzateke irakurleak ATBri buruzko eritzia eman dezan. Sariren bat edo zozka liteke erantzuleen artean, erantzun gehiago eragiteko.

Ideia hor dago. Ez dut kopirraitik kobratuko.

Mikel Irizar

Zuberoako damak **Beñar** erreportariaren itaunari Etxahunen «*Landan eder iratze, behi ederrak aretxe; zu bezalako pollitetarik desir nuke bi seme*» bertsoaz arrapostu izan balio, ez zukeen barre-algara handiagorik eragingo alboko zaldun dotorearengan. Monterreren, berriz, halaxe gertatu bide zen, denon gozamenerako.



Postal ederra **Iñaki**

Mendiguren eta **Jon**

Sarasuak Tunisiatik bidali

digutena. Leintzeko zaratotsak

besteontzat laga eta lpar

Afrikan astebete zoragarria

igaro omen dute gamelu

bihurri artean. Argazkian Iñaki

Mendiguren, *Alkatearekin*

berbetan saioa zuzentzen.

Telebelarri

◆ Venezuelan Jose Mari Mendizabalek gramatika bat idatzi zuen eta nik koru bat antolatu eta zuzendu».

Antton Markaidek
Erretratoa saioan.

◆ Bakarrik gaueko 11.00etatik goizeko 8.00etara egoten naiz, baina ez dut bakardaderik sentitzen».

Antton Markaidek
Erretratoa saioan.

◆ Gipuzkoako abadeen batzbesteko adina 62 urtekoa da».

Antton Markaidek
Erretratoa saioan.



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Baliteke arazobaxoren batzuk suertatzea lan arloan nagusia eta bion artean eman litekeen gaizki ulerturen bat dela medio. Ez da arduratzekoa izango, Aries, komunikatzeko trebe egongo bait zara eta suerta litezkeen arazoak erraz konpontzeko gai izango.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Saturno ezkonbizitzaren etxean duzu, Leo. Honek laguna eta bion artean tirabirak sor ditzake. Besteekiko sortuko zaizkizun desadostasunak ez itzazu aditzera eman, makal egongo bait zara eta erraz minduko, nahiz eta asmo txarrak ez izan bitartean.




SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Irudimenaz sortutako lanen baten ondorioz ezusteko diru-sarreraren bat izatea suerta liteke, Sagitario. Ez ezazu aditzera eman bekaizkeria dela medio norbaitek zure txarrerako izango duen jarreraren bat hartzea suerta liteke eta.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Derrepenteko aldaketaren bat egon liteke zure bizimoduan Eguzkia eta Neptunoren artean dagoen trigonoarengatik. Aldaketa egingo duzun bidaiaren baten ondorioz eman liteke. Esan beharra dago onerako izango dela eta aspaldidanik espero duzula.




VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Baliteke lagunena bat oldarkor azaltzea, ez zenioke jaramonik egin behar harreman horrek irautea komeni zaizulako. Bidaitzeko paradarik suertatuz gero egin maleta eta joan, izango dituzun harremanak benetan aberasgarriak izango dira eta.



CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Zure ondokoan arteko harremanak nahiko latzak izango dira datozan egunetan. Ez ezazu parterik har sortuko diren liskarretan, konforma zaitez entzule izatearekin, hobeto egongo bait zara. Diru kontuetan zorte ona izango duzu edozein eratako jokoetan.




GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Dirua erruz gastatzeko arriskuan izango zara, Gemini, eta zure ekonomia ez dago gehiegikeriatan ibiltzeko. Beraz, josi ezazu ondo poltsikoa eta libertzeko beste ekintzaren batzuk antolatu.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Zailtasunak sortuko zaizkizu bai lan arloan bai etxean besteen nahiak edo beharrak ez dituzulako beteko. Ez da zure ohizko jarrera baina eziozu bestelako garrantzirik eman denok izaten bait ditugu noizean behin gorabeherak.




AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Osasuna izango da benetako arreta eskaini beharko diozuna, Acuario, urdaila ez bait duzu oso-osoko edukiko eta ondorioz, zure umorea ere ez bait da oso sana izango.




CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Ez zara zeharoko egongo eta zure lagunena asmoak okerreko aldetik ikusiko dituzu beti, zure kontra arituko bailliran. Zure irudimena baino ez da izango, Cancer, eta saia zaitez denbora gaizki pentsatzen ez pasatzen, ez bait du merzei.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Konfusioa nagusituko da zure barruan eta zirt edo zart egiten ohituta bazaudere, oraingoan ez ezazu horrelakorik egin, okerreko bidea hartzeko aukerak milaka bait dituzu. Edozein erabaki hartzeko aste bi edo itxarotea mesedegarri izango zaizu.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Eskaintzaren bat egingo dizu lagunena batek; sekulako ilusioa egingo dizu gainera, baina inizatiba zeuk hartu beharko duzu bestela ideia asmo hutsean gera bait liteke. Bestalde, zure beharrak betetzen lagunduko dituzten lagun asko izango duzu inguruan.

BIDEO-EMANALDIA

Wanda izeneko arraina

Tokia: Monterron kultur etxea.

Eguna: maiatzak 17.

Ordua: arratsaldeko 4etan.

Prezioa: 50 pezeta.

Sarrerak: Monterronen.

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea




Goi mailako Ostalaritza Eskola

OÑATI

Hasierako urte honetan Arrasateko Eskola Politeknikoaren babespean izango den eskola honek 1991-1992 ikasterterako izen emate epea ireki du:

Eskaintza.

- **HEZKUNTZA EREDU BERRIA**
 - 1go I.E.E., zerbitzu arloko praktikekin.
 - 2. mailako sukaldaritza lanbide modulua.
- **PEDAGOGI AZPIEGITURA AURRERATUA**
 - Laborategiak eta ordenadore gela.
 - Aplikazio hotela eta jatetxea.
 - Sukalde pedagogikoa.
- **ZERBITZU ABANTAILAK**
 - Instalakuntzak.
 - Kokapena (Oñatin, erdigunean).
 - Garraioa eta jangela.
 - Eskolaz kanpoko kultur ekintzak.
- **IRAKASKUNTZA PERTSONALIZATUA**
 - Talde txikiak.
- **IRAKASLEGO ESPEZIALIZATUA**
 - Ostalaritza arloko profesionalak.
 - Hizkuntza ezberdinen irakaskuntza.
 - Informatika.
 - Dietetika.
 - Teknologia.
 - Osasuna.



1991-1992 ikasterterako izen emate epea maiatzaren 15etik 30era izango da. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak bidalitako aurreinskripzio inpresok norberaren ikastetxean izango dira eta ikastetxean bertan izen emate eskaera Arrasateko Eskola Politeknikoari, eta ostalaritza adarrean bereziki, egiten zaiola azpimarratu beharko da.

Informazio gehiago nahi baduzue, maiatzaren 21ean, arratsaldeko 7etan Arrasateko Eskola Politeknikoaren Areto Nagusian bilera izango duzue



TALDE - LANEAN , INDARTSU

Eman Botoa EAJ ri



**Aldakuntza aitzindari duen
ekipo baten indarrari
urbildu zaitez buru belarri
eman botua guri
EUZKO ALDERDI JELTZALEARI**

